

K...eta!
Kitto!

2018-IX-14

1069 zkia.

ALEX ROBLEÑO

Kirola beste dimentsio batean



ASPALDIKO!

EUSKARA

BERRIRO

ZURE

BIZITZAN.

18/19 18/19

2018-2019 IKASTURTEA
MATRIKULA ZABALIK

Irailaren 27 ra arte

- *Ordutegi eta erritmo malguak*
- *Tarifa bereziak*
- *%20, %50 eta %75eko deskontua*

PORTALEA - **Bista Eder, 10** 943 70 09 12 euskaltegia@eibar.eus

Eibarko
Udal
Euskaltegia



Etorkizuna gidatzeko prest egon zaitez

FORD FOCUS Berria

Aurkezpena eta proba pribatua zuretzako bakarrik

IRAILAREN **20** TIK **22** RA BAKARRIK,
FORD KONDIA ZURE KONTZESIONARIO OFIZIALEAN (EIBAR)



Deskubritu FORD FOCUS berria,
etorkizuneko teknologia zoragarriekin.
Probatu eta eraman ezazu, baldintza paregabeekin.
Izan zaitez lehena!



KONDIA
www.fordkondia.com

HITZORDUA ESKATU:

» **943 090 651**

www.nuevofocus.eu/Kondia

FORD KONDIA (EIBAR)

Otaola Etorb., 22 | T. 943 202 091 | M. 674 385 509



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA:
Ainhoa Luz eta
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.250 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

Eskutitzak

– Alardearen berri ematen ari ziren kazetarien aurkako erasoak salatuz –

Hekimen Euskal Hedabideen Elkarteak larunbatean Hondarribiko alardearen berri ematen ari zirela hainbat kazetarik jasandako erasoak salatu nahi ditu eta, bide batez, elkartasun eta babes osoa adierazi nahi die euren lana egiten ari zirela eraso zituzten kazetari horiei denei.

Hekimenentzat onartezinak dira hainbat hedabidetako langileek jasan behar izan zituzten oztopo eta erasoak (bultzadak, irainak, lanerako tresnak kentzeko saiakerak...), eraso horiekin kazetari horiei ez ezik, herritar orok informaziorako eta adierazpen askatasunerako dituen eskubideei ere eraso egiten zaielako.

Erasotutako hainbat euskarazko hedabideetan diharduten kazetariak izaki (Antxeta irratia, Be-

ria...), informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea bera ere erasotua gertatu zen larunbatean eta hori ere salatu nahi du Hekimeneke, euskaraz diharduten hedabideen elkartea den aldetik.

Era berean, Hekimeni oso larria iruditzen zaio aipatutako erasoak une horretan ordena publikoaren ardura bere gain zuten ertzainen aurrean gertatu arren, hauek kazetariak babesteko edota erasotzaileak geldiarazteko inolako neurririk hartu ez izana.

Berriro ere honelakorik gerta ez dadin eta kazetariak beren lana berme guztiekin egiteko aukera izan dezaten hartu beharreko neurriak hartzeko eskatzen die Hekimeneke dagokien erakunde publikoei.

Hekimen

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MARMITTA- Esnea erabiltzeko ontzia, kantina. *"Betetako marmittiak burutik behera jo eban".*
MARRA-MARRA- Hots handia atereaz jan. *"Oillaskua marra-marra jan eban hazur eta guzti".*
MARSALA- Zuhaitz ederra. *"Sasoi batean gure ingurutako baso ederretan makiña bat marsal zeguan".*

astean esanak

"Atzerritarrek hain eskuzabalak izateak Alemania autosuntsituko du. Turkia, Ekialde Hurbila eta Afrikatik datozenek gure herria birrinduko dute, etorkin musulman horiek akats intelektualak izateaz gain integratzeko borondate gaiztoz dihardutelako. Hemendik bi-hiru belaunaldietara musulmanak gehiengo osoatuko dute Alemanian eta, horregatik, inmigrazioarekin amaitu beharra dago. Euren jaiotze-tasa dinamita da gure aurka. Islama oinarrian musulmanak ez direnak gorrotatzeko moldatutako erlijioa da eta, fanatismoarantz lerrokatzeaz aparte, izpiritu- eta bizi-baliabideak agortzen ditu, guztiok geldiaraziz"

(THILO SARRAZIN, SPDRA AFLIATUTAKO IDAZLEA)

"Populazioaren %78k du smartphonea eta, 16 eta 24 urte artekoetara mugatzen bagara, %95ek. Esnatu eta 12 minutu baino ez dira pasatzen lehenengoz telefonoa begiratu arte; eta bost heldutik bik 5 minutu baino ez dituzte hartzen. Internet ezinbestekoa dela diote %92k. Are gehiago, helduen %50ek diote euren bizitza aspergarria izango litzatekeela Internet telefonoan eskuragarri ez baleukate. Eta goiburu gehienek aukeratu duten datua: batez beste, 2 ordu eta 28 minutuz erabiltzen dugu telefonoa, eta 18 eta 24 urte artekoek, berriz, 3 ordu eta 14 minutu ematen dituzte telefonoan. Telefonorik gabeko garaik nostalgiaz gogoratu, zertan emango genukeen denbora hori? Bizitza aberatsagoa izango genuke?"

(GARAZI GOJA, IDAZLEA)

"Mundu paraleloa sortzen dihardugu, guztia aldatzen doana, lengoia barme. Orain dela aste batzuk Lizeoan nintzen, opera funtzio batean, eta harrituta geratu nintzen mundu guztia mezuak bidaltzen zituela ikustean. Ez dakit non gauden, eta inork badakien ere zalantza ditud. Gaur egun guztia nahasten da eta esango nuke fikzioak duela errua, metafizio eta antzeko esperimenduak bihurtutakoan. Eta hori baino txarragoa da inolako prestigiorik ez duen firma batekin, edo firmarik gabe, informazioa kaleratzen denean, kontrolatu gabeko gaindosietan gainera. Lehen bagenekien eleberrietan eta pelikuletan gertatzen zena gezurra zela; orain egia izatea eskatzen dugu. Filmeak ere osorik ikusteko sortzen dira, nahiz eta guk zatika ikusi"

(EDUARDO MENDOZA, IDAZLEA)

Jubilauak asteleheneroko mobilizaziñuekin segiduko dabe

Uda honetan tarte batian atsedena hartu daben arren, Eibarko jubilau eta pentsiodunak aste honetan, astelehenero bueltau dira Untzagara, udaletxe parian konzentraziñua egin eta atzera be pensioño duiñak eskatzera. Oin arte egin daben moduan, ikasturte honetan be asetero mobilizaziñuak egitteko asmua dakela iragarri dabe, eskatzen dabena lortu arte. Gauzak holan, astelehenero egingo dabe konzentraziñua Untzagan, 12:00xetan udaletxe parian, eta jende guztia eurekin bat egittera animau nahi dabe. Aurrera begira, eskualde maillako beste ekitaldi bat egingo dabela emon dabe aditzera: Debarreneko herri guz-



tiak ziharkatuko daben bira egingo dabe, euren eskaeriak batzen dittuan komunikaua udaletxe guztietan entregatzeko. Urriaren 1ian Elgoibartik abiatuko da bi-

ra eta egun horretan, eguardixan Eibarrrera, Untzaga plazara ailegauko da. Hurrengo egunian, barriz, Mendaro, Mutriku, Deba eta Zumaiara juango dira.



Sindikatuak deittuta alkarretaratzia egin eben Untzagan.

Bihargin bat larri zauritu zan astelehenian Matsariko Alca taillarrian izandako istripuan

Astelehen goizian lan istripua gertatu jakon bihargin bateri, Matsariko industrialdian dagan Alca enpresan eta, zaurixak oso larriak zirala-eta, istripua gertatu zan tokittik Ipuru zelaiaño anbulantzia eruan eben larrialdi zerbitzuetakua eta, han zain eguan helikopteruan sartuta, zauritutakua Gurutzetako Ospitaleraño eruan eben jarraixan. Ertzaintzak aditzera emondakuaren arabera, biharginari altzairuzko xafla bat erori jakon gaiñera eta hanka bixak azpitan harrapatu zetsazen. Zauritutakua 58 urteko garraiolari bat da eta kamioian zaroian materixala deskargatzen ari zala gertatu zan ezbeharra, 10:45 aldera.

Sindikatuetakoa ordekarixak emondako informaziñuaren ara-

bera, egun berian bigarren istripu bat gertatu zan Mañarian (Bizkaia). Kasu honetan bihargin bateri zuhaitz bat gaiñera erori jakon eta hori be helikopteruan eruan bihar izan eben ospitalera. Gertatutakua inguruan protesta egitteko, eguazten arratsaldian alkarretaratzia egin zan Untzagan, ELA, LAB eta gehixengo sindikala osatzen daben gaiñontzeko sindikatu eta eragillak deittuta. Euren berbetan, "gertatzen diran istripu gehixenak sahiestu leikez, beti be horrek prebenitzeko neurrixak hartuz gero. Izan be, prekariedadia gaintzeko neurrixak hartzen ez diran bittartian eta administraziño publikuak beste aldera begiratziari lagatzen ez detsan bittartian, holako gehixago gertatuko dira".

Eskerrak emoteko programia preparau dabe Amañako jaixetako antolatzaillak

Aurten 40 urte bete dittuen Amañako jaixetako antolatzaillak herrittareri eskerrak emoteko ekitaldi berezixa antolatu dabe, "urte honetan jaixeri lagundu eta babesa emotiarren". Asmo horrekin, irailleko azken astebururako egitarau berezixa preparau dabe. Irailaren 28xan (barixakua), 19:00etan txosnia zabalduko dabe Untzagan eta, jarraixan, 200 txorizo banatuko dittue jendiarren artian, duan. Illuntzeko 20:45etik 22:45era, barriz, dantzaldixa egingo da, Mugi Panderoa taldiarekin eta 23:00etan egitarauko ekitaldi nabarmenetakua, Raimundo Amador gitarrojole ezagunaren kontzertua hasiko da. Hurrengo egunian herri-bazkari solidariuxa egingo da, "Alas para Aroa" alkartiak Amaña es la Cañarekin alkarlanian antolatuta; arratsaldia puzgarriak, bertso-poteuak eta ume guztiendako txokolate-janak beteko dabe; eta gabian musikia izango da protagonista, Parrapas taldiak girotuko daben dantzaldixarekin eta Ermuko Stai Zitto taldiaren kontzertuarekin.

AMAÑAKO JAIK 2018 
ESKERRIK ASKO EIBAR!
UNTZAGA PLAZAN - EIBAR

Ostirala, irailak 28 / Viernes, 28 de setiembre
 19:00 Txosnaren irekiera / Apertura de la txosna
 19:30 200 txorizo banatu / 200 chorizos gratis
 20:45-22:45 Mugi Panderoarekin dantzaldia / Verbena con Mugi Panderoa

23:00 RAIMUNDO AMADOR kontzertua

Larunbata, irailak 29 / Sábado, 29 de setiembre
 14:30 Herri-bazkari solidarioa, Alas para Aroa-ko antolatuta, Amaña es la Caña-rekin elkarlanean / Comida popular solidaria, organizada por Alas para Aroa, en colaboración con Amaña es la Caña
 16:00 Gaztelu puzgarriak / Castillos hinchables
 19:00 Bertso-poteoa / Verso-poteo
 19:30 Ume guztiendako txokolate-jana / Chocolate para todos los niños
 20:30-22:30 Parrapasekin dantzaldia / Verbena con Parrapas
 23:00 Stai Zittoren kontzertua / Concierto de Stai Zitto

Txosnan ogitartekoak eta pintxoak egingo dira / Habrá bocadillos y pinchos en la txosna

EIBARKO SPALLA



Automobil klasikuak erakutsiko dittue Untzagan domekan

Automobil klasikuen konzentrazioa egingo da domekan Untzagan, harmailen aldian. Goizeko 10:00etatik aurrera eta 14:00xak arte kotxiak plazan egongo dira, nahi dabenak ikusteko aukeria izateko. Halanda be, tarte batian (12:30etatik 13:00era bittartian) Untzagatik etarako dittue, herriko kalietan kalejiran ibiltzeko. Aurreikusitako ibilbidiaren arabera, honek

dira ziharkatuko dittuen kalietako batzuk: Juan Gisasola, Sostoatarren, Romualdo Galdos, Santaiñes, Aizarna, Sankristobal (bidegurutzia), Ubitxa, Urki, Txaltxa Zelai, Bista Eder, Bidebarrieta, Urkizu, Karmen, Barakaldo, Arragueta, Errebal, San Juan, San Andres pasialekua, Amaña, Unibersidade Laborala (bidegurutzia), Otaola Hiribidia eta Isasi.

asteko
42.214
datua

erabiltzaille izan dittue Ipuruko kanpoko igerilekuan azken denboraldixan, iaz baiño 4.000 gehixago. Jende gehixen ekaiñaren 26xan bildu zan, 1.826 lagunekin. Eguzkixak be, Gorbeako artzaiñak pronostikatutakua baiño gehixago bisitatu zeskun, antza.

autuan

URKI-REN 40. URTEURREN BAZKARIXA

Urki Kirol Klubak urrian beteko dittu 40 urte foball federatuan eta, hori ospatzeko, hillebete horretarako hainbat ekitaldi berezi antolatu dittue, tartian urriaren 27xan egingo dan bazkarixa. Ipur sagardotegixan izango da eta, klubeko kidiak ez eze, Urki taldian jardun daben guztiak dagoz parte hartzera gonbidatuta (aurretik izena emon biharko dabe, cdurkieuskalnet.net helbidera idatzitta edo 943701904 / 678395039 telefonuetara deittuta).

ARRATIETAKO ERRIFAN SARITUTAKUAK

Arrateko jaixetan, txosnetan saldu zittuen errifaren zozketan, sarixa irabazi daben zenbakixak honek dira: lehen sarixa 2315 zenbakixari tokau jako (ordezkua 1632) eta bigarrena, barriz, 0619 zenbakixarendako izango da (ordezkua 1967).

MUGIKORTASUNAREN EUROPAKO ASTEA 2018

IRAILAK 16-22

IRAILAK 16, IGANDEA

PEDAL EGUNA (Eibarko Txirrindulari Elkarte)
09:00 – 13:00 Untzaga Plaza

IRAILAK 19, ASTEAZKENA


HITZALDIA: Mugikortasun jasangarriaren sustapena Gipuzkoan (Marisol Garmendia, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa GFAko Diputatua) 18:30 – 19:30 Portalea

IRAILAK 20, OSTEGUNA

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN
MARTXA (IES UNI Eibar-Ermua BHI) 10:00-12:00

IRAILAK 21, OSTIRALA

- TXIKIENTZAKO BIDE-SEGURTASUNeko ZIRKUITUA
- EKO-BIKE TAILERRA
- BIZIKLETA ELEKTRIKO BAT UTZIKO DIZUGU 16:00 – 20:00 Untzaga Plaza




Konbina ezazu
eta mugi zaitez!

IRAILAK 22, LARUNBATA

- AUTORIK GABEKO EGUNA (Udalbus doan)
- BIGARREN ESKUKO BIZIKLETEN AZOKA
- BIZIKLETAK KONPONTZEKO TAILERRA
- BIZIKLETA ELEKTRIKO BAT UTZIKO DIZUGU 10:00 – 14:00 Untzaga Plaza

IRAILAK 23, IGANDEA

ANTZINAKO BIZIKLETEN ERAKUSKETA
(bikeibar) 10:00 – 14:00 Untzaga Plaza

herriko kaleei begirada**ARDANTZA**

egilea:
FERNANDO ESNAOLA

Dibujo Eskolarekin elkarlanean

Prest dago "Debabarrena Integra-bat eginez" programako ediziño barrixa

Hamairugarren ediziñua beteko dau "Debabarrena Integra-bat eginez" izeneko programak hasi barri dan 2018-2019 ikasturtian. Armerixa Eskoliak antolatzen daben egitasmua bazterte egoerian daguezeneri zuzenduta dago eta fase bi izango dittu: lehelenguan gaztelera intensibua eta konpetentzia matematikua landuko dittue (216 ordu), Eibarko HHI helduen irakaskuntzarako zentruan, irailaren 24tik 2019ko urtarrillaren 25era arte. Astelehenetik eguenera, klasiak 11:00etatik 14:00etara izango dira eta baxakuetan 12:00etatik 14:00etara. Eta bigarren fasian FMEE0108 fabrikaziño mekanikoko eragiketa osagarriak ikasiko dittue (440 ordu). Armerixa Eskolan izango dira klasiak, otsailaren 4tik ekaiñaren 13ra bittartian, eta 1. maillako Profesionaltasun Ziurtagirixa eskuratuko dabe ikasliak. Gaiñera, horretarako gai diran ikasliak praktika profesional ez laboralak egingo dittue.



Interesa dakenak Lanbiden emon biharko dabe izena, lan-eskatzaille gisa. Horrez gain, gitxienez 16 urte izan biharko dittue eta Debabarrenian bizi biharko dira. Sarbide proba datorren eguaztenian (irailaren 19xan) egingo dabe, 13:00etan Armerixa Eskolan. Proba egin ahal izateko aldez aurretik izena emotia eskatzen dabe, Lanbiden ez eze Armerixa Eskolako webgunian be (<http://ikastaroak.armeriaeskola.com/curso/334/info> helbidian).

**Jabetze Eskolako ahalduntzeko espazio barrixak ipiñiko dittue martxan**

Hillebete honetan Jabetze Eskolako ahalduntzeko gune barrixak abiatuko dittue: "Harreman afektibua Tratatu Onak sustatzeko gunia" eta "Gure burua maitatzen ikasten" izenekua ikasturte barrixarekin batera ipiñiko dittue martxan eta, aurrera begira, "premiña ezberdiñak atenditzeko eta lantzeko" beste espazio batzuk garatzen juateko asmua dakela aurreratu dabe Berdintasun Zerbitzua-Gizarteintzako ordezkariak.

"Harreman afektibua Tratatu Onak sustatzeko gunia" sortuta, "andrazkuen ahalduntzian laguntzia, tratatu ona mailla pertsonalian, harremanetan zein gizartian txertatuta, bakian oiñarritutako erlaziñuak sortzeko" lortu nahi dabe. Horretarako, urritik aurrera hasiko da batzen taldea, hamabost egunetan behin (hillebete bakoitxeko lehen eta hirugarren egunetan, 18:00etatik 20:00etara Andretxean) eta dinamizatzaillia Inma Merino de Castro izango da (saiuak gaztelera izango dira). Izena emoteko epia zabalik dago (Andretxean). Eta "Gure burua maitatzen ikasten" izeneko guniarekin, barriz, "bortizkeria jasan daben andrazkuen ahalduntze prozesua sustatzia" nahi dabe, "euren bizitzaren gaiñeko erabagixak hartzeko eta, taldiaren interakziñuaren bittartez, tratatu onetatik abiatuta bizitza-proiektu bat sortzeko". Kasu honetan dinamizatzaillia Itziar Gandia Quintanilla izango da. Informaziño gehixago nahi dabenak Berdintasun Zerbitzura (Gizarteintzara) jua leike galdetzera, Portaleko 4. pisura.

Arrate izenekuak domekan ospatuko dabe euren jaixa

Hogeitabigarren urtez jarraixan, Arrate izena daken andrak alkartuko dira domekan izen bereko tokixan, euren urteroko jaixa ospatzeko. Urteroko planari jarraituta, euretako batzuk goizetik, 09:00etan ekingo detse Eibartik Arratera oiñez igotziari, Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik. Behin Arratera ailegauta, 10:30xak aldera bat egingo dabe automobillez edo autobusez igo diranekin eta, danak alkarrekin, egun osorako planari helduko detse: hamarretakua egin, santutegixan mezia entzun, antolatu dittuen jolasetan (zaku-lasterketan, sokatiran...) lehiatu, Kantabria jatetxian bazkaldu eta DJ batek girotuko daben dantzaldixan oiñak astindu, horrek dira, bestiak beste, egune-

rako aurreikusitta dittuen jarduerak. Urtetik urtera gorabeherak egoten badira be, aurten gitxienez 30 bat lagun alkartuko dira.

Domekako jaixak, gaiñera, bat egingo dau Arratera bizi izatera jua diran mojei harrera egitteko santutegixan 12:00xetan ospatuko dan meza berezixarekin. Donostiako Elizbarrutiko hainbat ordezkarien partehartzia izango daben ospakizuna Jose Ignacio Munnilla gotzaiñak zuzenduko dau. Bestalde, hurrengo astebururako beste ekitaldi berezi bat antolatu dabe, moja barri batek abitu-hartzia egin eta kongregaziñuan sartuko dalako. Paraguayko gotzain emerituak gidatuko dau ekitaldi hori, Azkoittiko famelixari bisita egittera etorri dala aprobetxauta.



lazo ediziñuan bildutakuak eliz barruan.

Datorren astian hasiko dira Legarreko jaixak

Dana prest dake Legarren datorren asteburuan auzoko jaixak ospatzeko. Hurrengo barixaku arratsaldian hasiko dira Arrajolape alkartekuak preparau daben programaziñoko jarduerak, 19:00etan txosnia zabaldu eta jarraixan egingo diran umiendako jolasekin. Ondoren, urteroko martxan, patata-tortilla txapelketia

hasiko da eta, hori amaittuta, auzoko gaztiak afarixa egingo dabe. Gabian, 22:00etatik aurrera, parte hartzeko kontzertuetarako tartia egongo da eta, handik ordubetera, zuzeneko musikarekin segiduko dabe, Eirband taldiaren eskutik egingo dan kontzertuan. Jaixetako bigarren egunian, barriz, goizetik ekingo detse jaixari, 11:30xetan jokutzen hasiko dan Legarreko III. Kronoeskillariak. Eguardixan, zaharren egoitzan hasitta, auzuan pintxopoteua egingo dabe, trikitilarixak eta buruhundixak lagunduta eta, ondoren, Ortutik Ahora catering enpresakuen eskutik auzokuendako bazkarixa egingo da. Bazkalostia musikarekin girotzen, barriz, DJ Arnok jardungo dau. Arratsaldian Antxo eta Pantxaren eskutik "Amamaren ganbara" umiendako ikuskizuna eskinduko da, jarraixan umiendako txokolata eta bizkotxuak banatuko dittue eta, horren atzetik, buruhaundixekin eta Mugi Panderoa taldiarekin batera kalejiran ibilliko dira. Eta, kalejiria amaittuta, erromerixia egingo dabe Mugi Panderoa taldiarekin. Programia agurtzeko, gaberako kontzertuak antolatu dittue. Hasieran beste talde batek jardutia aurreikusita baeguan be, azken orduko aldaketak tartian, Nafarroatik etorriko diran Sofokaos taldekuak eta Nor Naiz izenekuak emongo dabe kontzertua, bata bestiaren atzetik.




MIREN ZURIKARAI ATXA-ORBEA

2018ko irailaren 1ean hil zen



FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Datorren martitzenean aurkeztuko du BERBETAN programak ikasturte berria

Irailaren 18an, martitzena, azalduko dizkigu ...eta kitto! Euskara Elkarreak aurtengo ikasturterako BERBETAN eta ONGI ETORRI programetarako prestatu duen eskaintza.

Aurkezpen-ekitaldia Portaleko areto nagusian izango da arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Programok diruz babesten dituzten erakundeetako ordezkariak eta herriko elkarreetakoak, berbalagunak, ikastetxeak... egongo dira. Ekitaldia irekia izango da nahi duten guztientzat. Beraz, euskera praktikatu, praktikatzea behar dutenei lagundu edo gure hizkuntzan eta kulturaren murgiltzen lagundu nahi duenarentzat hitzordu garrantzitsua izango da martitzenekoa, bertan emango dira-eta azalpen guztiak.

Aurkezpenean bi programen barruan 2018/19 ikasturterako prestatu duen egitarau zabalaren berri emango du ...eta kitto!-k: jaialdiak, irteerak, munduko janarien tailerrak, Santa Agedako kalejira, eskulan-tailerrak... Jakina, astero euskera praktikatzeko elkartzen diren mintzapraktikako taldeak ahaztu barik.

Euskera praktikatu astean behin

Mintzapraktikako taldeak astean behin elkartzen dira euskera praktikatzeko. Euskeraz hitz egiteko erraztasuna lortu nahi dutenak euskaldunekin elkartzen dira ordubetz, taberna batean normalean, eta giro informalean euskeraz hitz egiten dute edozein gairi buruz: ikusi duten azkeneko pelikula, asteburuan zer egin duten, seme-alabak zer moduz... Helburu nagusia euskeraz berba egiteko erraztasuna lortzea da.

Harrera eta elkarbizitza sustatuz

Horretarako jaio zen, hain justu, Ongi Etorri programa, herriko jatorri ezberdinetako bizilagunak euskerara eta euskal kulturara gerturatzeko eta elkar ezagutzeko. Urtean zehar egiten dituzten ekintzetako asko berbalagunekin batera egiten dituzte. Iaz, adibidez, Munduko Janarien Tailerrak antolatu zituzten, eta izandako arrakasta ikusita, aurten beste lau-bost saio egingo dituzte.

Bikote linguistikoak ere martxan

Txalan Txalan egitasmoak bikoteen arteko hizkuntza-trukaketa eskaintzen du. Ongi Etorri programaren haritik jaio zen orain dela pare bat urte, eta aurten ere bikote artean hizkuntza desberdinak praktikatzeko aukera emango du.

Berbetan

Izena eman!
 ¡Apúntate!
 Doan!
 Animatu!

Berbetan **Ongi etorri**

943 20 09 18
 www.etakitto.eus

Euskerazko mintzapraktika taldeak
 elkarrea@etakitto.eus

Harrera eta elkarbizitzarako programa
 Programa para la acogida y convivencia
 ongiatorri@etakitto.eus

Antolatzailea: **eta kitto!**
 Babeslanak: **Ongi etorri**, **eta kitto!**, **Herriko Elkarrekin**, **Herriko Elkarrekin**



Giro natural eta informalean euskera praktikatzeko dute berbalagun-taldeak.

Berbetan jaialdiak auzoetan

Irailaren 21ean, barixakua, haurrentzat puzgarriak, tailerrak eta Arima Diskofesta egongo dira Untzagan, eta jolasak eta txokolatada Urki, Ipurua eta Urkizu auzoetan iraileko azken astean.



Irailaren 21ean Untzagan
Irailaren 25ean Urkin
Irailaren 26an Ipuruan
Irailaren 28an Urkizun

Kalean ekingo dio Berbetan egitasmoak ikasturteari. Azken urteotakoari jarraituz, Untzagan egingo da jaialdi nagusia eta ondoren, auzoek hartuko dute lekukoa. **Irailaren 21ean arratsaldeko 17:00etatik aurrera** ez da aspertzeko astirik izango. Ordu horretan jarriko dira martxan **eskulan-tailerrak eta puzgarriak**, 18:30ak arte, eta ordu horretatik aurrera gorputza mugitzen hasteko aukera egongo da **Arima Diskofestaren** eskutik. **DJ eta animatzaile** baten laguntzarekin jolasak, koreografiak eta sasoi desberdinetako abestiekin primeran pasatuko dugu. Adin guztietako partaideentzako ikuskizuna izango da eta ez da aitzakiarik izango gorputza astintzeko.

Bien bitartean, ...eta kitto! Euskara Elkarteko kideek Berbetan programaren inguruko informazioa banatzen jardungo dute: noiz, nola eta non eman daitekeen izena, zeinek har dezakeen parte, zein helburu duen, zein ekin-tza egiten diren urtean zehar...

Baina Untzagara ez ezik, auzoetara ere joango dira antolatzaileak egitasmoaren berri ematera: **"Irailaren 25ean Urkin** egongo gara, **Cepa taberna** parean, **26an Ipurua** aldean, **Ipur tabernaren** ondoan eta **28an Urkizuko parkean**. Arratsaldeko 17:30etik aurrera umeentzako jolasak eta txokolatada prestatu ditugu".



Berbetan
JAIA 2018
Irailak 21 Untzagan
17:00etatik aurrera
puzgarriak
eskulanak
disko festa
ZATOZ!
eta
kitto!

Euskararen Transmisiorako VII. mintegian gurekin izan genuen PATXI SAEZ BELOKI soziolinguista eta Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko kideak kolaborazio hau bidali digu, aproposa ikasturte hasierarako.



Egiazko euskaldunak *patxi saez beloki*

«Neska eibartarra eta euskalduna, horrela aurkeztuko nuke nire burua. Aitari aita esaten diot eta amari ama, mugikorrean ere aita eta ama dauzkat jarrita. Sei neba-arreba gara eta gure artean euskaraz egiten dugu. Baina, oraindik ere, badira etorkin ikusten gaituztenak».

Etorkin ikusten dutela dio euskararen EGA maila egiaztatuta daukan neska eibartar batek. Hori dio Euskal Herriko Unibertsitatean magisteritza graduako ikasketak euskaraz egin dituen 25 urteko neska gazte euskaldun batek. Bere ikasle diren neska-mutilekin euskaraz egiten duen andereño euskaldun batek. Romaesa Benslaiman musulmanak. Buruzapia jazten duen musulman euskaldunak. Noiz utziko dio askoren begien aurrean etorkin izateari? Noiz izango da gutarra? Noiz arte jarraituko diote bere euskalduntasunari entzungor egiten?

«Askotan euskaraz egin eta gaztelaniaz erantzuten didate. Ez dut ulertzen hori. Badirudi burmuina gelditu egiten zaiela, stop! Ez dute entzun ere egiten euskaraz ari naitzela!».

Horrelakorik sekula ezagutu ez dutelako, euskaldun askori ez zaio burutik pasa ere egiten arabiar eiteko neska batek euskaraz egitea daukanik. Erabat ezinezkoa iruditzen zaie eta beren buruari ukatu egiten diote solaskideak euskaraz egin dezakeenik. Eta ukazio horretatik egiten diote erdaraz.

Gasteizko plaza batean magoa ekarri dute umeen gozagarri eta aztoragarri. Magoak atsegina eta jator azaldu nahi du umeen aurrean eta, haurrak bereganatzeko, galdezka hasi zaie (Barquín, 2018):

Magoa: Kaixo, nola duzu izena?

Rachid: Rachid.

Magoa: Eta nongoa zara?

Rachid: Gasteizkoa.

Magoa: Ez, baina zu, nongoa zara?

Rachid: Ba, Gasteizkoa.

Magoa: Baina, zure gurasoak nongoak dira?

Rachid: Algeriakoak.

Magoa: Eta non Algerian?

Rachid: Ez dakit.

Noiz arte erantzun beharko dio Rachidek nondarra deneko galderari? Nongoa den galdetuz, noiz arte ukatuko diote Rachidi bere euskalduntasuna? Rachidek noiz arte ordaindu beharko du *larrutik* bere azalmintz kolorea?

Rachidek eta Romaesak bezalako bizipenak dituztenek maiz beren burua ez dute ez hemengo eta ez hango ikusten. Hemen bezala, han ere bere hangotasuna ukatzen dietelako. Maiz beren burua ez dute inongo ikusten. Identitate oro ukatzen zaielako, hangoa eta hemengo.

Romaesak oso argi azaldu digu:

«Ez daude ohituta eta kosta egiten zaie hori buruan sartzea. Batzuetan jendeak ez du ulertzen musulmana eta euskalduna izatea, ez hemen, Euskal Herrian, ez han, Tangerrren. Landare bat toki batetik bestera eramaten duzunean, landarea nongoa da? Non ditu sustraiak?».

Lursagarra —patata— aipatu digu Romaesak. Landarea XVI. mendean Amerikako Ande mendien goi-lautadan ia 4.000 metrora dagoen Titikaka aintzira ingurutik ekarritakoa dugun arren, gaur egun Arabako patataren jatorri izendapena dugu: Euskal Herriko patata. Musulman euskaldunekin ere berdin gertatuko dela dio Romaesak baina horretarako denbora beharko dugula:

«Hemen oraindik atzeratuta gaude immigrazioa berandu heldu zelako. Amerikan eta Ingalaterran hori gaindituta dago. 40 urte barru, hemen ere, beharbada, gauzak Ingalaterran bezala izango dira».

Romaesak euskararekin duen ustearen berri ere eman digu. Bertakotasuna ukatzen zaiolako bere burua hemengo ikusten ez duenak beste ukazio batekin erantzun ohi du eta, horregatik, gehienetan, euskara ikasteari uko egiten dio. Nork bere burua bertakoa izatea bezalakorik ez dago euskara kolkoratzeko.

Gure gizarte hurbila gero eta zabalagoa eta anitzagoa bihurtzen ari zaigun honetan, elkarbizitzarako txertoaren premian gabiltza, aurreiritziak sendatzeko txertoaren premian. Txerto hori gabe, bidegabekerian oinarritutako gizarte egiturak eta praktikak eraikiko baititugu.

Gure seme-alabak, ilobak eta bilobak larruazal ilunagoko euskaldunen eskolakide, ikaskide, gelakide, taldekide, mahaikide, jolaskide, adiskide, anaikide, herrikide, etxekide, bizikide, bikotekide eta, azken batean, parekide nahi al ditugu?

Seme-alaba, iloba eta biloba horien ikaskide sultan edo kalifa musulman baten aberats-etxeko alaba balitz, edo Algeriako gasarekin aberastutako enpresari baten semea, eta, gainera, ikaskide horiek euskaradunak balira, jarrera bera izango ote lukete aita-ama, osaba-izeba eta aiton-amona horiek?

Hemen, gure artean, hazten eta hezten ari dira; eta hemengo guztia ere bada beraiena. Euskalduntasuna ere bada beraiena. Euskaldun peto-petoak izatea ere bada beraiena. Egiazko euskaldunak izatea ere bada beraiena eta, batez ere, berdinen arteko elkarbizitza ere bada beraiena.

BIBLIOGRAFIA:

BARQUÍN LÓPEZ, Amelia (2018) «Ikasle etorkinak eskolan, euskararentzat (eta bestela) non dago kaltea?» Euskararen Transmisiorako VIII. mintegia, Eibar: Eta Kitto! Euskara Elkarte, 2018-03-07.

ANTONIO GONZALEZ GUERRERO

3. urteurrena: 2015-IX-20

“Beti gogoan”

— ZURE FAMILIA



Udako oporrak amaitu dira eta Eibarko hezkuntza zentroek atek ireki dituzte berriz ere. Unibertsitatekoak ez diren ikasketak eskaintzen dituzten herriko zentroek 5.241 ikasle jasoko dituzte ikasturte honetan, iaz baino bat gutxiago. Haur Hezkuntzatik Batxilergora D eredia da ikasleen aukera nagusia, baina Lanbide Heziketa egiten dutenek nahiago dute A eredian ikasi.

Berriz ere eskolara

Azken hamarkadako joera apurtu da hasi berri den ikasturtean eta ez da hazkunderik egongo matrikulazioetan. Izan ere, aurtan **5.241 ikasle eman dute izena** unibertsitateko ez diren ikasketak egiteko **Eibarren (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa)**, iaz baino bat gutxiago.

Hizkuntzari dagokionez euskara da ikasle eibartarren aukera nagusia. **Ikasleen %65ek euskaraz egingo dituzte ikasketak**, hau da, 3.421 ikasle eman dute izena **D eredian**, baina ikasleen adina handiagoa den neurrian gaztelaren hautaketa gero eta nabarmenagoa dela esan beharra dago.

Haur hezkuntzako 1.055 ikasleek D eredia aukeratu dute, baina hortik aurrera ikasketak B edo A eredian egiteko hautua egin dute hainbat ikasle. Lehen Hezkuntzan, adibidez, 1.493 ikasle D eredia aukeratu dute (157 ikasle B eredia, euskara eta gaztelera uztartuz); Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 908 ikasle aukeratu dute

D eredia (202 ikasle B eredia); 305 ikasle egingo dute Batxilergo D eredian (131 ikasle A eredian, euskara ikasgai bat izango delarik); eta Lanbide Heziketako zikloetan 260 ikasle aukeratu dute D eredia (552 ikasle A eredia eta 169 ikasle B eredia aukeratu dute).

Zenbakiei begiratuta ikusten da D eredia aukeratzeko duten ikasleen portzentaia behera doala adinean gora egin ahala. Zentzu honetan azpimarratzekoa da Lanbide Heziketako ikasketak eskaintzen dituzten




zentroek, Uni Eibar-Ermua eta Armeria Eskolak, zikloetako ikasketak euskaraz egitea bultzatzeko joan den ikasturtean martxan erakutsitako asmoa. Udalaren eta '...eta kitto!' Euskara Elkartearekin batera elkarlanean dabilta zentro biak, eta ikasle gehienek Lanbide Heziketa gaztelaraz egitea aukeratzeko arrazoien eta konponbideen bila dabilta lanean buru-belarri.

Ikasleentzako diru-laguntzak

Ikasturte hasieran dauden gastuei aurre egin eta Eibarko merkataritza guneetan erosketak egitea indartzeko orain dela 18 urte martxan jarri ziren diru-laguntzak dira **'Umeak Eskolara' eta 'Dirulaguntzak Ikasleei' programak**. 2 eta 15 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago lehena eta 16 eta 25 urte bitartekoentzat bigarrena, eta ikasle bakoitzak 60,10 euro jaso ditza ke laguntza horien bitartez.

Aurtengo ikasturtean 258.800 euroko partida bideratu du Udalak programa hauek asetzeko. Erropak, zapatak, kirola egiteko materiala, eskolarako materiala (liburuak ezik), betaurrekoak eta lentilak erosi ahal dira diru honekin Eibarko dendetan, eta urriaren 31an amaituko da diru-laguntza jasotzeko epea.

'Umeak Eskolara' laguntza jaso ahal dutenek gutuna jasoko dute etxea eta 'Dirulaguntzak Ikasleei' programako onuradunak, bere aldetik, Pegorara joan beharko dira dokumentazioaren bila.



Eskolak bete egin dira oporretatik bueltan. Urkizu, gainera, berritu ere egin dute.

Euskadi tropikala ez da Amazonia

Brasilgo iparraldeko klima tropikalean jaio eta hazi eta gero normala da Euskal Herriko neguko hotza ez gustatzea, baina hori kenduta oso pozik bizi da Sandra Rocha Eibarren. 10 urte daramatza hemen eta bihotzaren zati bat bere jaioterrian badu ere, hau de bere etxea. Euskara ere ikasi du. *“Beno, berba egitea kostatzen zait, baina ulertu gauza asko ulertzen ditut”.*

Oihanez inguratuta

Rondonian jaio zen Sandra, Brasil barnealdean. *“Oihan, oiha-nean”*, berak esan digun bezala. Iparraldean Amazoniako estatuak mugatzen du Rondoniako estatua, baina bere jaioterriak ez du munduko ibai luze eta emaritsuenaren estatuaren osperik. Oihanez inguratuta egonik, egurraren industria da nagusi Rondonian nekazaritzarekin batera (kakaoa, kafea, arroza...). *“Nire aitxitxa eta amamak, ordea, behiak dituzte eta esnea saltzetik bizi dira. Orain gauza gutxi landatzen dituzte, lurrak ez duelako gehiagorako ematen”.*

Aitxitxa eta amama Brasilen

Puerto Viejo eta Yi-Parana dira Rondoniako hiri handi eta garrantzitsuenak, baina Sandra herri txiki batean hazi zen aitxitxa eta amamarekin. *“Amak oso gazte eduki ninduen eta nire kargu egin ahal izan arte eurekin bizi izan nintzen”.* Landa giroan bizi zen eta berak dioenez alde handia dago hemengo eta hango bizimoduaren artean. *“Oso lasai bizi ginen han hemengoarekin alderatuz”.* Gero, hamalau urterekin amarengana etorri zen Eibarrera bizitzera, baina aitxitxa eta amama Brasilen daude. *“Euren falta asko igartzen dut. Zorionez hara itzuli ahal izan naiz, baina eurek ez dute etorri nahi hegazkina ez hartzeagatik”.*

Lan handia hezkuntza onaren bila

Bere Brasil kuttuna uztea asko kostatu zitzaion eta hasierako momentuak ez ziren errazak izan Eibarren. *“Brasilera bueltatzeko zorian egon nintzen”*, baina Sandrak eskertzen du hona bizitzera etorri izana. *“Hezkuntza-maila, adibidez, askoz hobea da hemengo”.* Hala ere, lan handia egin behar izan du. Euskara eta gaztelera jakin ba-



Udako giroa negukoa baino nahiago du Sandrak.. Ekhi Belar

rik iritsi zen Eibarrera eta, iraila zenez, eskolan hasi zen berehala. *“Gogorra izan zen, ez nuen hizkuntza eta jendea ezagutzen, eta Oinarrizko Lanbide Heziketako zentrorra bidali ninduten nire ikasketak maila ume batena bezalako zelako”.* Sukalde-laguntzaile titulua atera zuen han eta, gero, eskola-graduatu Halduen Hezkuntza zentroan. Ondoren, erizain-laguntzailea izateko ikasketak egin zituen eta Arrasateko Aita Menni ospitalean egiten du lan gaur egun. Aurrera begira erizaintza ikasi nahi du, *“baina pausoz pauso joango naiz”.*

Kickboxingera engantxatuta

Sandraren mutil-lagunak kickboxingarekiko zaletasuna sartu zion eta gaur egun egunero entrenatzen du Armeria Eskolan. *“Orain dela lau urte hasi nintzen, asko gustatu zitzaidan eta, gainera, ondo dago defentsa pertsonala ikastea”.* 60 lagun inguru biltzen dira Armeria Eskolan, *“eta 10 neska inguru gaude tartean”.* Momentuz disziplina hau ikasi eta praktikatzearekin konformatu da, baina hemendik aurrera serioago hartu eta abenduan lehiatzen hasteko go-goia daukala esan digu.

“No fim tudo dá certo, e se não deu certo é porque ainda não chegou ao fim”

“Azkenean dena ondo irteten da, eta ez bada ondo irteten, bere amaierara iritsi ez delako da”

Irakurketa taldeak, irakurzaleen taldeak, irakurketa klubak, literatura txokoak... izen desberdinak izaten dituzte. Azken urteetan handik eta hemendik taldeen kopuru hazten joan da. Aldez aurretik egingo den liburu baten irakurketa oinarri bezala hartuta, norberak sorrarazitako iritziak, ideiak eta sentsasioak beste irakurleekin elkartrukutzen dira. Eibarren ditugun taldeak prest daude ikasturte berriari ekiteko.

IRAKURKETA TALDEAK EIBARREN



Antxon Narbaizak zuzentzen duen Harixa Emoten euskarazko irakurketa taldea.

Irakurzaleentzako taldeak ikasturte berriari ekiteko prest

Ororokorrean funtzionamendua hau da: taldeak liburu bat aukeratzen du eta irakurtzeko denbora bat ematen da. Irakurketa hori ez da elkarrekin egiten, norberak nahi duen tokian baizik. Data bat ezartzen da eta egun horretan taldea bildu egiten da irakurritakoa komentatzeko. Bileretan, normalean, dinamizatzaile bat egoten da, baina ez bere iritziak ezartzeko, guztiei ahotsa emateko eta eztabaida zuzentzeko baizik. Irakurleek liburuaren elementu desberdinak komentatzen dituzte: argumentoa, pertsonaiak, estiloa... Bilera amaieran hurrengo saioko irakurri behar dena zehazten da. Liburutegia arduratzen da liburuak errazteaz. Irakurketa taldeen fenomenoaren helburu nagusia irakurtzeko ohitura sortzea eta sustatzea da. Horri liburutegietako zerbitzuen erabilpena sustatzea gehitu behar zaio, eta, nola ez, aisialdi aktiboa eta osasungarria sustatzea. Badaude euren hizkuntz gaitasuna hobetzeko asmoz izena ematen dutenak ere.

2006. urtetik Eibarren

Eibarko liburutegian gaztelarazko taldea 2006an jaio zen. Eva Alberdi Eibarko Juan San Martin liburutegiko arduradunak azaldu digunez, "Maria Jesus Agirrek gidatu

zituena lehenengo urteak, 2009ra arte. Gero eten bat izan genuen eta berriz hasi ginen 2011an Txomin Magdalenarekin. Dinamizatzaile honekin hiru ikasturte egon ginen eta honek bere anaiari, Peru Magdalenari pasatu zion lekukoa, gaur egunera arte". Durangarrak dira anaia biak. Peru hilean behin etortzen da gaztelarazko taldea gidatzera. Saio batean hurrengo saioko liburuak ematen dizkiete partehartzaileei. Eta hilabete bat izaten dute lasai irakurtzeko. Elkartzen direnean irakurritakoari buruzko iritziak elkartrukatzen dituzte. Jendea gustora egoten da eta askok errepikatu egiten dute, "jende berria joaten da sartzen, baina gehienak aurreko urteetakoak izaten dira. Euskal Herriko liburutegien sarean hainbat lote daude, bakoitza 20 liburukoa, eta hortik hornitzen ditugu Eibarko irakurle taldeak. Egutegia prestatuta izaten dugu eta eskaera egiten dugunean mezulari batek ekartzen digu materiala", azaldu digu Evak.

"Kaleratzen den unetik liburuak irakurlearena izaten da"

"Harixa Emoten" Euskarazko taldea 2013an hasi zela ondo gogoratzen du Evak: "Guk ez genuen euskarazko talderik eta ...eta kitto! Euskara Elkarrekin bere taldea zuen. Eibarren bi talde egoteak ez zeu-

kan zentzu handirik, eta elkarrekin egitea erabaki genuen. Dinamizatzaile lanetan Antxon Narbaiza ibiltzen zen ...eta kitto!-n eta berak jarraitu zuen. Euskarazko taldeak badi berezitasuna, saioetan idazlea egoten delako. Euskal Idazleen elkarrekin diruz laguntzen du eta eurek ematen dizkigute idazleen kontaktuak. Antxonekin batera aukeratzen dira liburuak eta Ikasturte osoko egutegia prestatzen dugu". Aurtengo lehen saioan, irailaren 25ean, Karlos Linazasoren "6012" liburua aztertuko dute. Saio hauetan idazleek gauza asko kontatzen dituzte, "nola hasi zen liburua idazten, pertsonaien nondik norakoak... gauza asko izaten dute kontatzeko. Eta jendearen iritziak entzutea asko gustatzen zaie. Esaten dute liburuak kaleratzen denetik, kalean dagoenetik, ez dela eurena, irakurleena baizik. Irakurle bakoitzak bere ikuspegia dauka eta idazleen sormenerako oso interesantea izaten da irakurlearen ekarpenak entzutea, asko eskertzen dute hori". Talde hauetan Antxonek aurretik beti prestatzen du dossier bat, laburpen batekin eta liburuari buruz berak daukan iritziarekin eta partaide guztiei aurretik bidaltzen zaie. Ordubeteko saioak izaten dira, hilean behin. Euskarazko zein erdarazko taldeetan 16 urtetik gorakoek har dezakete parte eta 20

bat laguneko taldeak izaten dira. *"Taldea handiegia ez izatea gomendatzen da. Dena dela, izen-ematea ixita badago ere, norbaitek interesa badu gurekin harremanetan jarri daiteke, eta saiaturako gara leku bat egiten"*, esan du Alberdik.

Litertxoko, AGIFES, Biztu, Pagatxa, nagusien egoitzak...

Gaztelarazko lehenengo irakurketa taldeak eten bat izan zuen jaio eta bi urtera, 2009an. Baina hori ez zen izan taldea desegiteko zergatia; izan ere, talde horretakoak euren kabuz elkarte gastronomiko batean elkartzen hasi ziren, eta gaur egun ere taldeak martxa jarraitzen du. *"Litertxoko izena jarri diote taldeari eta, nahiz eta euren kabuz funtzionatu, gure laguntza eskaintzen diegu. Euri ere liburuak ekartzen dizkiegu Euskal Herriko liburutegien saretik eta euren eskura jartzen ditugu, beste taldeekin egiten dugun bezala"*. **Biztu** Jubilatatu eta pentsionisten elkartearen eta **Pagatxa** emakume taldearen baitan sortutako irakurketa taldeak ere hornitzen ditu udal liburutegiak.

Irakurketa ahalik eta jende gehiagorengana zabaltzea da Liburutegiaren nahia eta, horrexegatik, aipatutako talde horiez gain "irakurketa erraza" ekimena bultzatzen dute. AGIFES buru osasun arazoa duten pertsonen ekartekoekin, San Andres nagusien egoitzakoekin eta Ego



Irakurketa ahalik eta jende gehiagorengana zabaltzea da Eibarko Liburutegiaren helburua. Argazkian Eva Alberdi, liburutegiko arduraduna.

Gain egoitzako unitate berezi batekin egiten dute lan. Horiei ere ekartzen dizkiete liburuak. *"Liburu bereziak izaten dira, ezaugarri zehatzak dituzte: esaldi laburrak, hiztegiak albo batean... AGIFESekoak astero etortzen dira liburutegira euren dinamizatzailearekin. Eurentzako garrantzitsua da esparru arrunt batean egoteko gai direla ikustea"*. Talde guzti hauekin egoten den elkarlana oso positibotzat jotzen du Evak, *"Lana ematen du, baina guretzako ezinezkoa litzateke hainbeste talde dinamizatzea"*.

Haur eta gurasoentzako taldeak

Etxeko haur eta gaztetxoentzako ere antolatzen dira taldeak Udal Liburutegitik eta oso arrakasta handia izaten dute. *"Taldea hauek antolatzerakoan adin guztiak hartu nahi ditugu, txikiak direnetik gazteak diren arte, azken finean lehen urteetan hartzen delako irakurtzeko ohitura. Gurasoek garrantzia ematen badiote liburu batekin tarte bat pasatzeari, hor sortuko da ohitura"*. Ikasturte amaierako balorazioek adierazten dutenez, umeak oso gustora joaten dira saioetara eta etxean ere eskatzen diete gurasoei ipuinak kontatzeko. Haurren taldeetan izenematea oso altua izaten da eta zozketa egin behar izaten dute. Aurten, dena dela, talde gehiago sortzeko asmoa daukate. Izen-ematea hilaren 21era arte egongo da zabalik.

8-12 urte bitarteko gaztetxoek ere oso ondo pasatzen dute. Hauek liburu etxera eramaten dute eta, horretaz gain, saioetan fitxa edo lan batzuk egiten dituzte. *"Lan guzti horiekin bakoitzarentzako liburu bat egiten dugu eta urte amaieran etxera eramaten dute"*.

Saroa Bikandik 6 edo 7 urte inguru daramatza txikienezko dauden talde biak



Saroa Bikandik zuzenduko ditu aurten ere haurren taldeak.



MANU FERNANDEZ GOIKOETXEA

4. URTEURRENA: 2014-VIII-4

**EZ EGIN NEGARRIK AMAITU DELAKO;
IRRIBARRE EGIN BIZI IZAN DUGULAKO.**

Zure kuadrila

zuzentzen. Azalerako ipuinak taldean 2-3 urteko haurrak egoten dira eta *Liburuena poltsa* delakoan 4-5 urtekoak. Saroak azaldu digunez, "talde hauetan gehienbat gurasoak motibatzea bultzatzen da eta plazeretik ondo pasatzea bilatzen da. Umeak ama edo aitarekin etortzen dira. Azken batean, familia ekintza bat da eta baliabideak ematen zaizkie gurasoei haur literatura hurbitzeko. Gauzak nola egin daitezkeen ikasten dute. Beraz, erronka handiena gurasoak dira. Haur literatuaren inguruan gurasoek euren iritzi propioa sortzen joatea da helburua, ziurtasunez mugitu daitezkeen". Gure herrian oso gustora sentitzen da Saroa, "Eibarren euskara maila altua dago eta jendea eskerronez etortzen da".

Literaturaren aberastasuna gazteen esku

Peru eta Txomin Magdalena anaiak ondo ezagutzen dituzte gazteentzako eta helduentzako irakurketa klubak. Urteak daramatzate zeregin horretan eta herri askotan ibilitakoak dira. Aurten Txominek gidatuko du 8-12 urte bitarteko gaztetxoentzako Eibarren. "Gazteentzako taldeetan genero desberdinak ezagutzera em-

ten ahalegintzen gara: ipuinak, olerkiak, komikiak, kontsulta liburuak... Literaturaren aberastasuna gerturatu nahi izaten diegu. Gainera, gazteekin beti egiten dugu sorkuntza lanen bat. Olerki liburu bat irakurri badugu, beste saio baten olerkiak sortzen ditugu denon artean, edo bakoitzak berea. Gidoiren bat ere egin izan dugu inoiz. Modu horretan lotsa kendu eta sorkuntzarako grina sortu nahi dugu". Irakurketa haurtzaroan eta gaztaroan lantzearen garrantziaz egin digu berba Txominek. "Nola lortuko dugu 15 edo 16 urterekin gazteek irakurtzea txikitik ez badute liburuak harremanik izan? Hori ezinezkoa da!". Udal liburutegietan irakurketa bultzatzeko gauza mordo egite direla azpimarratu du durangarrak, "nahiz eta jendea askotan ez enteratu".

Helduen zein nagusien taldeetan "liburuaren bizitza luzatu egiten da: iritzi desberdinak ematen dira, besteen ikuspe-



Txomin eta Peru Magdalena anaiak dinamizatzaile lanetan ibiltzen dira irakurketa taldeetan. Peru Eibarko helduentzako erderazko taldean dago eta Txominek gaztetxoekin jardungo du aurten. Argazkia: Anboto.

gia entzuten da, idazlea gehiago ezagutzeko aukera egoten da...". Harremanak sortzeko ere balio dute. Txominek ondo dakienez, "taldeak oso anitzak dira: etxekoandreak, jubilatutakoak, unibertsitariok... Normalean emakume gehiago egoten dira. Amankomunean irakurzaletasuna daukate eta berba pila bat egiten da. Dinamika onak eta jarrera positiboak sortzen dira".

- Eibarren egindako markak
- Moda
- Etxeko osagarriak
- Yoga: "Yoga + Jarrera-Adimena" "Jarrera berregokitzea"
- Pilates Essential: "Lur eta aireko fusioa"
- Urtebetetzeak
- Formakuntzak
- Dastatzeak
- Hitzaldiak
- Ekitaldi korporatiboak

Eta askoz gehiago!

hello@helmethouse.es
943 849 310

BLAS ETXEBERRIA 1,
COLISEO ONDOAN!

helmet house
CONCEPT STORE

moments with a story behind

Marketingaren inguruko coobis.com webgunearen arabera Espainiako e-kiroletako sei *influencer* (eragileak) handien artean dago Alex Robleño eibartarra. Bideo-jokoetako jokalaria profesionala izan da eta, izaera ekintzailea duenez, Omnis (omnisclub.com) enpresa sortu du. Ermuko Izarra Centren dauka egoitza enpresa honek, baina sarean aurkituko duzue bere saltsan. Izan ere, sareak ez dauka sekreturik Omnis osatzen duten lagunentzat.

ALEX ROBLEÑO (e-kiroletako aditua):

“E-kirolen industria gora doa eta ikusten ez duenak trena galdu dezake”

- Zer dira e-kirolak?

Ez dago e-kirolak zer diren zehazten duen definizio zehatzik edo arautuko duen federaziorik, baina badago kontsentsu bat horren inguruan. Garapenagatik kirol tradizionalen txapelketen mailara iritsi diren bideo-jokoen edo oinarri digitala duten disziplinen lehiaketak dira. E-kiroletan parte hartzen duten taldeek zale asko dituzte, errendimendu handiko eta lehiarako dinamikak dituzte integratuta (gaur egun kirol tradizionalak duten moduan), jokalarien trebetasunak baldintzatzen du emaitza (hau da, ez da zori-joko bat) eta, e-kiroletan dabilzan jokalarien masa oso handia denez, jokalaria onenen arteko lehiaketetako esijentzia maila oso altua da.

- Zein momentutan pasatzen da bideo-jokoetan jolasten dela esatetik e-kiroletan parte hartzera?

70. hamarkadatik existitzen da fenomeno hau, jendea *Spacemar* bideo-jokoan jokatze

biltzen hasi zenetik. Orduan *LAN party*ak egiten hasi ziren, hau da, ekipo informatikoekin bideo-jokoetan jokatze, partekatze eta informazioa trukatzeko egindako ekitaldiak. *Quake* bezalako jokoekin asko hazi zen fenomeno hau eta hain zuzen ere bideo-joko honen egileak, John Carmackek, bere *Ferrari* autoa sari moduan jarri zuen *QuakeCon* txapelketan. Hortik aurrera bideo-jokoen industriaren gorakada nabarmena izan zen eta *Cyberathlete Liga Profesionala* eta bideo-jokoen ekitaldi erraldoiak egiten hasi ziren. 2000 urte inguruan e-kirolen mugimenduaren korrontea nagusitzen hasi zen, batez ere *Turtle Entertainment* enpresak bultzatuta *ESL (Electronic Sport League)* markarekin. Gaur egun e-kiroletan bideo-joko famatuena direnak sasoi horretan jaio edo orduan finkatu ziren (*League of Legends*, *Counter Strike*, *Starcraft*...).

- Nola antolatzen dira e-kiroletako txapelketak? Jokoen



arabera? Liga ezberdinak daude?

Pokerraren antzeko zirkuituak daude, *NBA*-ren antzeko ligak (konferentziekin)... mota askotako lehiaketak antolatzen dira. *ESL*-ren bitartez, adibidez, ia joko guztietako lehiaketak egiten dira, baina jokogaraitzaile batzuek eurek sortutako jokoen txapelketak (ekitaldi puntualak) bultzatzen dituzte hirugarren batek lehiaketa horiek kudeatzea laga barik. Funtzionatzeko bi modu horiek ditugu, baina nahasketak ere egon dira. Espainian bideo-jokoen Liga Profesionala dago eta munduko lau liga garrantzitsuen artean dago (Koreakoa da nagusi). Oso zirkuitu ona antolatzen da Liga Erregularrarekin, Koparekin, jardunaldi presentzialekin (saskibaloiko Errege Kopako antzeko formatuekin) eta bestelako formatuekin. Joko bakoitzaren arabera modu batean edo bestean jokatzen da, eta kirol tradizionalak izan dira egitura horiek zehazteko ere-

duak. Ondo egin dira eta horren adibide da orain dela bi aste Miribillan 3.000 baino zale gehiago bildu izana Superligako finala ikusteko.

- Nolako ibilbidea izan duzu e-kirolen munduan?

Betidanik gustatu izan zait bideo-jokoetan jokatzea eta oso lehiakorra izan naiz beti. Unibertsitateko lagun batekin bideo-joko batean jokatzen eta lehiatzen hasi nintzen, eta aspertu egin nintzenez *Counter Strike*-rekin hasi nintzen. Interneten jokatzen nengoela beste jokalaria batek ondo jokatzen nuela esan eta bere taldean jokatzeko gonbidapena egin zidan. *Euskal Encounterrera* joan nintzen eurekin, nire lehen aldia horrelako txapelketa handi batean. Kantabriako taldearen aurka jokatzea tokatu zitzaigun, kamisetak eta guzti zituzten, beldurtu egin gintuzten, baina partida zoragarria egin nuen. Oso talde umila ginen eta Espainiako talde onenetako batek finalerdietan kaleratu gintuen. Hurrengo urte-

an antzeko maila erakutsi genuen eta *Pro Series* mailan jokatzeke lehiatzen zegoen talde batek, hau da, bigarren mailatik lehenengora igo nahi zuen talde batek, eurekin jokatzeke proposamena egin zidan. Hortik aurrera jauzi handia eman nuen. Fitxatu nindutenek ez zioten mailari eutsi eta taldea berregituratu genuen. Gauzak ondo irten ziren, beste talde batzuek denoi fitxatu egin nahi izan gintuztelako eta talde handi batean (*Dimegio*) amaitu nuen nire e-kiroletako ibilbidea 2014an. Hortik aurrera nire bizitzak beste bide bat jarraitu zuen.

- Zein?

Aurretik, karrera amaitu eta egun bat geroago, enpresa bat sortu nuen, baina 2013an bizitza aldatzeko aukera irten zizaidan eta enpresatik irten nintzen. Orduan, Mondragon Unibertsitatea ezagutu nuen. Enpresa mundura begira errendimendu handiko ekipoen garapenerako programa bat zeukaten eta horrekin bat egitea pentsatu nuen. Bi hilabetez Finlandiara joan nintzen eta e-kirolen munduan gauza asko egin zitezkeela ikusi nuen. 2014. urtea zen, e-kirolen goi-



mailan jokatzeke helburua aski bete nuen eta erretiratzea erabaki nuen Amerikako Estatu Batuetara (AEB) joan eta bide berri bat hartzeko. Onenengatik ikasi nahi nuen, motxila erramintaz bete. Ate asko jo nituen Kalifornian eta, zoriozez, zabalik aurkitu nituen. *IGN*, *Google*, *Apple* eta beste hainbat enpresatan egon nintzen. Demaseko esperientzia izan zen. Handik itzuli nintzean gauzak argi nituen: e-kiroletako klub bat egitea, *Omnis*. Talde bat osatu eta akademia bat egin nuen, baina pentsatzen nuen ezingo nuela ezertan lehiatu. Orduan, *Hearthstone* bideo-jokoan jokatzen hasi nintzen. Handik gutxira *Euskal Encounterra* izan behar zen eta guretzat erakus-

leio polita izan ahal zenez, dena ematera joan nintzen. *Hearthstone* Espainiako txapelketa handiena zen eta nire lehen aldia joko honetan lehiatzen, baina bigarren postuan amaitu nuen. Emaizta zoragarria izan zen eta hainbat jokalaria hurbildu zitzaizkigun gure aholkuak jaso nahi zituztela esanez. Horrela egin eta guri esker lehen mailara igotzea lortu zuten hurrengo urtean. *Omnisek* demaseko hasiera izan zuen eta gure tokitxoak aurkitu genuen e-kirolen munduan. Hurrengo urteetan klubak eboluzionatzen jarraitu zuen eta asko ikasi genuen, baina ez genuen dirurik irabazi. Beraz, aholkularitza zerbitzua ematen hastea erabaki genuen eta zoramena izan

zen. Asko ikasi dugu ordutik, bere zerbitzuak kirol tradizionaletik e-kiroletara eramaten dabilen jendearekin egin dugu lan eta kontaktu agenda izugarria eratu dugu. Gainera, sektore honetatik kanpo dagoen jende askori lagundu diogu. Bide horretatik jarraitzeko, gure klubeko jokalariek saldu eta e-kirolen ikus-entzunezko egitura handiena sortzen saiatu gara. Komunitate bat sortzea helburu duen *streamer* (zuzeneko bideoetan komunikatzen dabil-tzanak) talde bat osatu dugu. Otsailean *streamerren* Oscar-rrak antolatu genituen Ermuan, *Omniscon*, eta arrakasta handia izan zuen, gure apostua balioetsi genuelako. Gaur egun, e-kirolen bitartez inguruko enpresekin nola lan egin dezakegun ikusten ari gara, ikastaro batzuen bitartez *streamerra* izatea zer den ikusarazteko kontratatu gaitu Ermuko Udalak, eta gure *streamer* sarea sendotu dugu arlo horretan punta-puntan gaudela erakutsiz. E-kirolen industria gora doa eta ikusten ez duenak trena galdu dezake. Torlojuak egiten dituenak ere etekina atera dezake e-kirolekin eta *streamerrekin*.

Funeraria·Ehortzetxe
Mugica

EIBAR
 Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR
 Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean
 Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

2018/19 EUSKARA IKASTAROAK
matrikula zabalik
aek

EUSKALDUNTZE OROKORRA
 (AURREZ AURREKOA EDO AUTOIKASKUNTZA)

XEDE BEREZIKO IKASTAROAK
 (AURREZ AURREKOA)

- B1, B2, C1 (EGA) eta C2 mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irla, Osakidetza

ON LINE

- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- B1, B2, C1 (EGA) eta C2 mailak
- EGA lantzeko zerbitzu osagarriak
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

eibar@aek.eus **Udalaren laguntzaz BEKA SISTEMA**
Sostoa 1, 1. solairua Tfnoa: 943 201 379

*Iñaki Ugarteburu*

Amestu ditzagun autorik gabeko herriak

EGUNERO OSPATZEN DA EGUN BEREZIREN BAT; JARDUERA FISIKOARENA, MINBIZIARENA, INGURUGIROARENA... Irailaren 22an, berriro ere, autorik gabeko eguna izango da, eta egun honen helburua da –beste batzuen artean– gure herriak/hiriak autorik gabe nolakoak izan zitezkeen irudikatzea.

XX. mendeko azken herenean, gure herriak goitik behera aldatu ziren; industriaren garapenarekin, langile askoren etorrerarekin, autoen salmenta-igoerarekin..., oinezkoentzako tokiak auto-

entzako toki bihurtu ziren: errepideak, biribilguneak, aparkalekuak. Azken hamarkadetan ikaragarri handitu da autoen kopurua, eta hona hemen ondorioak: autoz jositako kaleak, kutsadura, autoen pilaketak.

Hainbat tokitan egoera sufritu ezina bihurtu da eta neurri zorrotzak hartu dituzte trafikoa murrizteko; matrikula bakoitiak eta bikoitiak tartekatu, ordaindu beharreko tasa ezarri hirian sartzeko, autoentzako ordutegiak murriztu eta baita autoen sarrra debekatu ere.

Ez dut autoen aurkako iritzia sortu nahi; aukera asko ematen dituzte lanerako eta aisialdirako, eta oso industria garrantzitsua da.

Garraio publikoaren aldeko apustu eten-gabea eta ausarta behar da autoen kopurua murrizten joateko.

Baina bitartean joan gaitezen irudikatzen autorik gabeko esparru handiak gure herrietan; oinezkoen neurrira egindakoak, irisgarriak, ibiltzeko, jolasteko, seguru joateko, paisaiatzat disfrutatzeko, berdegune ederrekin, jolas edota ariketa parkeekin...

*Izaro Apraiz*

Euskarazkena

KURTSO BERRIARI GEHIENOK IRAILA HASIERAN EGIN GENION ARREN, DENOK DAKIGU EIBARTARRONTZAT UDA ARRATE EGUNAREN ONDORENGO EGUNEAN AMAITZEN DELA. Erronka berririk planteatzeko momentua: kirola egin, udan hartutako kiloak ginetik kendu, erreteari utzi... urteko inflexio puntuetako bat dugu hau. Eguna laburtzen zaigu, zerua tristetu eta bizitza grisago ikusten dugu. Horrela da, onartu dezagun.

Aurten ordea, udaberritik dator urte hau berezia izango den susmoa. Koloretako

tantoek ordezkatu zituzten udaberriko loreak, eta udazkenean ere zuhaitzetatik hostoak erori beharrean koloretako tanto berak eroriko direla dirudi. Euskaraldia dator udazkeneko egun grisak kolorez betetzera, ahoak bizi-bizi jartzera, belarriak prestatzera eta bihotzak gozatzera.

Euskaldun irmoa bazara, Euskara ulertu baina hitz egiteko zailtasunak badituzu edo nahiz eta euskera jakin ez, inguru euskaldunetan gustora sentitzen bazara, baduzu zure txokoa hamaika egunetan zehar aurterra eramango den abentura polit hone-

tan. Izan ere Euskaraldia hori da, denon artean eta bakoitzak hartu nahi duen konpromezu maila hartuta, elkarrekin egingo dugun ariketa eder bat. Euskerak baduelako bere lekua gure bizitzan, Euskera badagoelako gure ahoetan, gure belarrietan eta garrantzitsuena dena, gure bihotzetan.

Egunotan egiten ari zaren hausnarkean, agendan egiten ari zaren planifikazioan, koloreztatu Azaroaren hogeita hirutik Abenduaren hirura doazen hamaika egunak, aurten udazkena Euskarazkena delako!

KITTONBOLIA



Mundialak zarete!



Eguraldi ederra izan genuen Arrate egunean: jendez gainezka zegoen eta horrela egon zen KITTONBOLIA bera ere. Goizeko 7etan ekin zion lantaldeak txokoa prestatzeari eta 10:00etan zabaldu genuen. Berehala hasi ziren lehenengo sariak ateratzen. Orduak aurrera egin ahala joan ziren irtetzen jamoia, galletak, otarra, etxerako apaingarriak, elektrodomestikoak, tabletak, txuletak, legatza, afariak, motxilak, arropak..., eta egun osoan, etenaldirik gabe, jardun genuen lanean. Mila esker eibartar guztiei urtero Arrateko Amaren egunean ematen diguzuen babesarengatik. Mundialak zarete!

Eta eskerrik asko, nola ez, Kittonbolako opari mordo hori osatzen lagundu diguzuen denda, elkarte, enpresa eta erakunde guztiei. Zuen laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzateke horrelako zerbait antolatzea.



Abestiak dioen moduan, "txanpon baten truke" oparia jasotzeko aukera izan dute Arrate egunean Kittonbolan egon direnek. Eskerrik asko Kittonbola posible egiten duzuen denda eta enpresa guztiei!!!



ANTOLATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

LAGUNTZAILEAK:

- ...eta kitto!
- +X- harategia
- Akara
- Ansa bitxitegia
- Aratatto
- Arregi-Dominguez arraindegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Aspe
- Astelena taberna
- Atelier
- Athletic Club Fundazioa
- Avia Amaña gasolindegia
- Avia Azitain gasolindegia
- Azitain erretegia
- Azpiri jostundegia
- Azpiri saneamenduak
- Baglietto
- Baratze taberna
- Benicoba
- Burbujas y Mas
- Capi
- Closet
- Dandara
- Dirdai
- Ditare
- Domeinua.eus
- Eguren
- Eibar Eskubaloia
- Eibar Kirol Elkartea / SD Eibar

- Eibar Motor
- Eibar Rugby Taldea
- Eibar Sasoian *Maider Carrasco*
- Eibar Sasoian *Isasi Masajeak*
- Eibar Sasoian *Ane Campos*
- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkartea
- Eibarko Udala (Kultura)



- El Canton de la Avenida



- El Corte Ingles



- El Jardin de Tulipa
- El Vestidor
- Emankor



- Eroski Eibar Hipermerkatua
- Eskarne
- Estaziño taberna
- Esther Galarza
- Farmalur
- Forchetta
- Garbibox
- Genoveva arraindegia
- Gerritek
- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak
- Gustatzen Jata
- Homme
- Hotel Unzaga Plaza
- Idoia Bergaretxe Spa
- Ibarkurutze frutadenda
- Ikusimakusi
- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Iñaki Harategia

ESKERRIK ASKO

laguntzaile eta

parte-hartzaile guztiei!!!

- Ipur Sagardotegia
- Irritsa
- Ixua Hotela
- Itxesi
- Izadi
- Izane
- Jauregi
- Jaz Zubiaurre
- Jeronimo



- Jorge Vega
- K2
- Kantabria Jatetxea
- Kanto Gasolindegia
- Kenay estetika
- Kenko (Eneko Mallagarai)
- Kenko (Laura Alluriz)
- Kerala
- Ketesa
- Khol ileapaindegia
- Kokein
- Kontent
- Kopina
- Kresala arraindegia
- Kultu taberna
- Klauss

- Laboral Kutxa
- Lakett
- Leder
- Lolas
- Look
- Los Chicos
- Luis del Rey
- Marsi
- Mas Que Wapos
- Meka-Hotel
- Mi Casa
- Mertxe gazta eta txerriak
- Mugika harategia
- Muma
- Neure
- No Comment
- Pio Pio
- Oberena harategia
- Okeletxe



- Oroz Exclusivas S.L.
- Otegi harategia
- Pirritx eta Porrotx



- Publi-Resa
- Residence Coffe Bar
- Salaberria
- San Andres gozotegia
- Sosola baserria
- Su ta Gar
- Tiro Pichon
- Tribeka
- Twins
- Txutxufletas
- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik




- Valenciaga
- Yraolagoitia
- Zorionak Kid's and Party
- Zubi Gain
- Zurkulu





28 eibartar egongo dira Ermuan jokatuko den GAZTE ROBOTIKA TXAPELKETAN

Ermuko Izarra Centrek Gazte Robotika hartuko du irailaren 22an 10:00etan, hau da, Euskadiko II. Hezkuntza Robotika Txapelketa. Haur eta gaztetxoen artean zientzia, teknologia, ingeniari eta matematikarekiko interesa piztea da egitasmo honen helburua, eta modu praktiko eta dibertigarrian lortu nahi dute hori. 8 eta 16 urte arteko 100 gazte inguruk eman dute izena txapelketan parte hartzeko, eta tartean 28 eibartar ibiliko dira.




Gazte Robotika txapelketa 22an jokatuko bada ere, ekainean hasi zuen ibilbidea, Eibarren hain zuzen ere. Tailer teknologikoa egin zen ekainaren 26tik 29ra Eibarren eta 40 gaztek hartu zuen parte bertan. Gero, Debabarrenako gainerako herrietan egin ziren tailerak, eta robotika alorrean Lego Mindstorms EV3 plataformarekin eta bideo-joko sorkuntza alorrean Scratch softwarearekin lan egin ahal izan zuten 2001. eta 2009. urteen artean jaiotakoek.

Gazte Robotika txapelketan hainbat erronka izango dituzte parte-hartzaileek. Lehendabizi '1vs1 game' jokoak egingo dute urrutiko agintea berreskuratu, robotaren kontrola hartu, banderatxoa jaitsi, norberaren koloreko blokeak bere tokira eraman, aurkariaren blokeak ezkutatu eta aurkariari puntuak kentzen saiatuz.

Bigarren jokoak 'Kolore, kolore' izenburua dauka. Froga honetan lau robotek hartuko dute parte (talde bakoitzean bi) eta koloreak sortu beharko dituzte; gero eta gehiago, hobe. Taldean egingo da lan kolore-paleta sortu eta beste taldeek ez zinkintzeko ahaleginak egin.

'Multi Kirola' da hirugarren jokoak eta kirol ezberdinetan trebeak direla erakusteko aukera izango dute gazteek. Bloke zutabe bat beheara bota, beste bloke batzuk helmugara eraman, altuera ezberdinetan dau-



den eratzunak alde batetik bestera mugitu eta, bukatzeko, saskibaloian jokatu beharko dute parte-hartzaileek.

Azken erronka 'Bideo-joko sorkuntza' izango da. Udako tailerretan bideo-jokoak sortzeko aukera izan zuten gazteek eta gero hobetu ahal izan zituzten txapelketa egin baino bost egun lehenago antolakuntzari entregatu aurretik. Oraingoan, epaileek bideo-jokoak ebaluatuko dute eta pare bat aldaketa erraz egiteko eskatuko die gazteei.

Tailer teknologikoak

Robotika txapelketaz gain, hainbat tailer teknologiko jasoko dira egitasmo honen barruan Izarra Centrean. MakeyMakey kontrolerarekin esperimintatzeko aukera egongo da; bideo-jokoak sortzeko Minecraft bezalako tresnak egongo dira eskuragai; 3D-tan diseinatu eta inprimatu ahal izango da; argazki kamera, bideo-ekipoa eta Chroma Key jarriko da gazteen eskura; eta robot kolaboratiboen erakusketa egongo da Iruña Tecnologiaren eskutik.



Maite Narbaiza Azkue

I. Urteurrena: 2017-IX-17

***"Patu makurrari
aurre egin zenion duintasunez.
Une oro gogoratzen zaitugu
maitasunez"***



Abantaila eta deskontu ugari Gazte-txartelarekin

14 eta 29 urte bitarteko gaztea bazara, zorionekoa zu, Euskadin zein Europan hainbat abantailaz gozatzeko aukera bikaina daukazu eta. Izan ere, asmo horrekin Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen Europako Gazte-txartelaren jabe izanez gero, etxean zein etxetik kanpo abantaila eta esperientzia ugariarekin gozatzeko aukera izango duzu: era guztietako deskontuak aprobetxatu, sarreren zozketetan parte hartu... eta bidaiari joanez gero, aseguruare ere doan izango duzu, besteak beste. Txartela internet bidez, www.gazteaukera.euskadi.eus helbidean eska daiteke eta, behin tasa ordainduta, etxean jasoko duzu. Behin eskuratuta, ahal duzun guztietan erabili dezakezu, besterik ez duzu egin behar txartelak ematen dituen abantailak aprobetxatzeko. Gainera, gogoan izan txartela ez dela iraungitzen 30 urte bete arte.



Abantaila bereziak

Gazte-txartelaren Pack-arekin

Urtero abantaila bereziak izango dituzu Gazte-txartelaren Pack-a mugikorrean deskargatuta baduzu. Hainbat abantaila interesgarri eskaintzen dituen Gazte-txartelaren Pack 2018a prest dago, Android eta iPhonean erabiltzeko moduan. Hori bai, Pack-eko eskaintzez gozatzeko

aplikazioa zure mugikorrera jeitsi beharko duzu.

Pack-ak eskaintzen dituen abantaila guzti horiek 2018 osoan zehar erabili ditzakezu, aisialdiaz, kulturaz, kirolaz zein bestelako eskaintzez topera disfruta dezazun, beti ere dirua aurreztuz.

Aplikazioak, besteak beste, gazte-txarteldunentzako deskontu-txartel bereziak dauzka eta APP-eko promozioetan parte

hartzeko ezinbestekoa da Gazte-txartelarekin batera NANA aurkeztea: *“Erakutsi aplikazioko deskontu-txartela eta klikatu bere TRUKATU botoian; ondoren, balioztatatu. Trukatu ondoren deskontu-txartela desagertu egingo da aplikaziotik”.*

Itzadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

1) Kardiologia	10) Barne Medikuntza
2) Zirugia	11) Radiologia
3) Dermatologia	12) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	13) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	14) Koloproktologia
6) Ortodontzia	15) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	16) Foto-depilazio Unitatea
8) Pediatria	17) Ginekologia BERRIA
9) Psikiatria	18) Psikologia BERRIA

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU, euskaratik gaztelarrera, gaztelaratik euskarara, eta ingelesezik euskarara.

ZERBITZUA
elkarte@etakitto.eus

Bizikletak protagonista datorren astean

Bizikletek toki berezia daukate Eibarko historian. Munduan aski ezagunak diren hainbat bizikleta ekoizle gure herrian jaio ziren eta txirrindularitza pasio handiz bizi da hemen. Hala ere, herrian mugitzeko orduan bizikleta ez da eibartarron garraio bide nagusia. Dena dela, datorren astean bizikletek zeresana emango dute Eibarren, garraio bide honek gure egunerokotasunean presentzia handiagoa izan dezakela aldarrikatu nahi delako.

Konbina ezazu eta mugi zaitetz! da 2018ko Mugikortasunaren Europako Asteko goiburua eta hainbat ekintza egingo dira hilaren 16tik 22ra. Bizikleta protagonista izango da aste osoan zehar eta Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako Bizikleta Egunak emango dio hasiera programari. Domekan 09:30ean egingo den mountain bike eta zikloturista martxarekin hasiko da Bizikleta Eguna eta, gero, bi zirkuitu egingo dira 8-10 urte bitartekoentzat eta 11-12 urte bitartekoentzat 11:30ean eta 11:45ean, hurrenez hurren. Egunari amaiera emateko gaztetxoentzako ibilbidea egingo da Untzagan 12:00etan.

Irailaren 19an, eguaztena, 'Mugikortasun jasangarriaren sustapena Gipuzkoan' izeneko hitzaldia eskainiko da 18:30etik 19:30era Portalean; eta hurrengo egunean mugikortasun jasangarriaren martxa

egingo da 10:00etatik 12:00etara IES UNI Eibar-Ermuatik.

Barixakua eta zapatua, hilaren 21a eta 22a, ekintza beteta datoz. Barixaku arratsaldean, 16:00etatik 20:00etara, txiki entzako bide-segurtasuneko zirkuitua eta eko-bike tailerra egongo dira Untzagan, eta antolatzaileek bizikleta elektriko bat utziko dute probatzeko. Zapatuan, ordea, goizaldean egingo dira ekintza guztiak, 10:00etatik 14:00etara hain zuzen ere. Autorik gabeko eguna izango da eta, laguntzeko, Udalbusa dohainik erabiltzeko aukera egongo da. Bestetik, bigarren eskuko azoka eta bizikletak konpontzeko tailerra egongo dira Untzagan. Gainera, aurreko egunean bezala, antolatzaileek bizikleta elektriko bat utziko dute baita ere.

Bigarren eskuko azokari dagokionez, erabilitako bizikletak eta mugikortasun iraunkorrenekin lotutako objektuak (patinak, patineteak, trizikloak...)



Bigarren eskuko bizikletak saldu eta erosi ahal izango dira hilaren 22an.

berrerrabiltzea da helburua eta herritar guztiek hartu ahal izango dute parte gordailu-sistema bidezko salerosketa merkatu honetan. Bere bizikleta saldu nahi duenak 09:00etatik 10:00etara eraman beharko du txirrindua Untzagara eta gordailu-zerbitzuan erregistratuko du nahi duen prezioarekin. Produktu bat baino gehiago eraman ahal izango da eta antolakuntzakoak arduratuko dira produktuak zaindu eta saltzeaz. Gero, bere produktuak salgai jarri dutenak 14:00etan bueltatu beharko dira saldukoaren dirua jasotzera edo utzitakoa batzera. Zerbitzua doakoa izango da eta ez da onartuko 400 euro baino prezio garestiagorik.

Bizikleten erakusketa museoan

Bizikletek Eibarko historian izan duten garrantziaren erakusle izango dira irailaren 22tik urriaren 21era Armagintza Museoan erakusgai egongo diren txirrinduak. 60. eta 90. hamarkada arteko 14 bizikleta egongo dira ikusgai; Abelux, BH, Cil Orbea, GAC eta Torrot markakoak, eta baita Eibarko lantegi auxiliarrek egindako bizikleten osagai batzuk ere (pinoiak, kateak, txirrinarak, etab.). Umeek zein gazteek erabiltzeko, lasterketarako, ibilaldiak egiteko... erabiltzen ziren bizikletak dira eta, Carlos Narbaizak jaso eta berritu eta gero, museoaren esku daude gaur egun.

Eibarko bizikletagintzaren erakusketa hasten den egun berean, hilaren 22an, doako bisita gidatuak egingo dira Armagintza Museoan dagoen erakusketa iraunkorra ezagutzeko. Bi bisita egingo dira, bata 17:00etan euskaraz, eta bestea 18:30ean gaztelaraz. Bisita gidatua jasotzeko beharrezkoa izango da izena ematea (943 70 84 46 telefonora deituta edo museoa@eibar.eus helbidera idatzita) eta plaza kopurua 20 lagunekoa izango da.



Eibarren egindako 60. eta 90. hamarkaden arteko erakusketa egingo da Museoan.

Foball-zaletuaren 38. edizioa bihar hasiko da 13 talderekin

Astlehenean aurkeztu zuten Isasiko KirolBet enpresaren lokaletan enpresa horrek babesten duen foball-zaletuaren denboraldi berria. Oraingoan txapelketa horrek 13 talde izango ditu, aurreko urteotan baino bat gutxiago, eta horregatik jardunaldi bakoitzean talde batek atseden hartuko du. Ipur Sagardotegiari dagokio astebete

geroago liga hastea eta honako partiduek osatuko dute asteburuko agenda: bihar, Los Paisanos L. Rueda – JMR Tanquemans (09:00), Bar Txoko – Barrik (10:30) eta Feredu Solutions – Bar Areto (12:00); eta etzi, La Jara R. Hiru – Larragets Sporting eta Garajes Garcia – Azkena Adahi (biak 09:00etan) eta Slow XOK – Durango (10:30).



Aurten ere KirolBet lokalean egin zuten aurkezpena. Artxiboa

65 bolarik hartu zuten parte Arrateko hiru-txirlo tiraldian

Beñat Gomez gizonezkoetan eta Olaitz Rodriguez emakumezkoetan izan ziren aurreko zapatuan jokatu-tako hiru-txirloko Arrateko Amaren Sari Nagusiko irabazleak. Beñat Gomezek aurrea hartu zien Angel Garcia, Sergio Rodriguez, Josean Blanco eta Roberto Oregiri, guztiak ere hiru txirlo jota hurrengo postuetan sailkatu zirenak. Emakumezkoetan Olatz Rodriguezek Sonia Gomez, Olatz Jimenez eta Nerea Jimenezi hartu zien aurre sailkapenean. 65 tiralarik eman zuten izena eta estali gabeko bolatokiak oraingoan eguraldiaren laguntasuna izan zuen.



Olatz Rodriguez eta Beñat Gomez txapeldunak, erdian.

Deporreko pilotariak gaur Astelenan



Azkargorta eta Camina.

Afizionatuen mailako bi partidu ikusteko aukera izango da gaur Astelena frontoian 19:00etan hasiko den jaialdiaren barruan. Gipuzkoako eskuz binakako txapelketaren lehenengo jardunaldiaren barruko partidua jokatu dira: helduen mailan, Narbaiza-Agirresarobe eibartarren bikoteak Legazpiko ordezkariak osatutakoa izango du aurrez-aurre; eta kadete mailan, Azkargorta-Camina bikoteak Billabonako Behar Zanako pilotariak izango ditu aurkari.

Herriko waterpolista garaile Donostiako itsas zeharkaldian

Aurreko zapatuan jokatu-tako Donostiako Badiako itsas zeharkaldian Urbat waterpolo taldeko Unax Unzetak txapela jantzi zuen infantil mailan. Eibartarrak bikain irten zuen Donostiako Naucotik eta, bikain osatutako zeharkaldiaren ondoren, proban nagusitzea lortu zuen.



IMANOL:
zure irribarrea
zure maitasuna
zure umore
eta alaitasuna
beti gure bihotzean



Imanol
Agirregomezkorta
Salaberria

I. URTEURRENA
2017-IX-8

Mountain-bike eta zikloturismo martxak izango dira Bizikletaren Egunean

Eibarko Txirrindularitza Taldeak Bizikletaren Eguneko edizio berria antolatu du domekarako, goiz osorako egitarauarekin. Horrela, 09:30ean Untzagatik irtenda abiatuko dira prestatutako martxa biak (mountain-bikekoa -inguruko mendietatik- eta zikloturistena -kostaldeko errepideetatik-), gero 12:30ean AGME-Apalategin biak elkartzeko. 11:30etik aurrera, bestalde, herriko erdiguneak gazteenen parte-hartzea izango du, Untza-

gatik abiatuko den zirkuitu baten inguruan: 8, 9 eta 10 urtekoek bi itzuli emanago diote aipatutako zirkuituari; ordu laurden geroago, 11:45ean, 11 eta 12 urtekoen ordua izango da; eta, azkenik, 12:00etatik aurrera, gaztetxoentzako ibilbidea izango da Untzagan bertan. Horrez gain, 8 urtera artekoentzako gunea egokituko da euren triziklo eta motorrak erabiltzeko. Opariak ere banatuko dira parte-hartzaileen artean.

Deltecoko ordezkariak zabala izan zuen Zumaiaiko triatloiak

Zazpi gizonezko eta bi emakumezko aurkeztu zituen Deltecok aurreko zapatuan Zumaian jokaturako XXII. triatloi sprintean. Parte hartzaile asko izan zituen kostaldeko proba horrek eta Eibarko ordezkariak honela sailkatu ziren: emakumezkoetan, Maialen Zamakolak ordu bete eta 17 minutu behar izan zituen proba amaitzeko eta 25. sailkatu zen, Esther Pa-geik lau minutu gehiagorekin 45. postuan amaitzeko; gizonezkoetan, Joseba Orte-

ga izan zen eibartar onena (84. postuan, eta atzetik izan zituen Roberto Gartzia (131), Moises Altuna (181), Alberto Agirre (209), Adrian Galan (217), Oscar Iriondo (218) eta Jesus Sanchez (219), azken hirurak elkarrekin helmugaratuta.

Pello Osoro dotore Fromistan ere

Palentziako Fromista herrian jokaturako triatloi olinpikoan bera izan zen Deltecoko Eibar Triatloi taldeko ordezkari bakarra

eta burututako proba ere halakoa egin zuen, bakarra: kilometro eta erdi igerian, 40 bizikleta gainean eta azken hamarrak arinetan egin ondoren, bigarren helmugaratu zen Pello, ordu bete, 48 minutu eta 12 segundoko denborarekin.



Eibartar batzuk Zumaiaikoa hasi aurretik.

Xake Eskolaren matrikulazioa zabalik hilaren 29ra arte

Klub Deportiboko xake batzordeak 2018/19 ikasturterako matrikulazioa zabaldu du Xake Eskolan parte hartu nahi dutenentzat. Aurreko ikasturtekoari jarraituta, bi talde osatuko dituzte, biek ere barixakuetan eta euskaraz jardungo dutenak: 17:30etik 18:30era berriak, hastapena eta jarraipena 1-ekoentzat; eta 18:30etik 19:30era helduak eta jarraipena 2-koentzat. Kasu-bereziak ere

aztertuko dira. Matrikula egiteko bi bide daude: e-postaz, xakea@deporeibar.com helbidera mezu bat bidalita; edo Deporren bertan, 18:30etik 20:30era. Klaseen prezioa 30 eurokoa da hiru hilabeteko eta klubeko bazkide izan beharra dago: ordaintzeko kontu-zenbakia eta bazkide egiteko txartela klubean bertan lortu daitezke. Hilaren 29an amaituko da matrikulatzeko epea.



Bizikletaren Eguneko aurtengo kartela.



Herriko igerilariak domekako Flysch Beltzari begira

Eibar Igerixan taldeko partaideek gogotsu hasi dute denboraldi berria eta gazteenek eguaztenean ekin zieten ikasturte berrirako entrenamenduei. Hasi eta berehala, urteko lez, ate joka dute Saturrarán, Mutriku eta Deba batzen dituen Flysch Beltza igeri zeharkaldi handia. Hitzordu berezi horrek, gainera, bi ibilbide eskainiko dizkie igerilariei bosgarren edizio honetan: 3.000 metrokoa bata eta 6.500ekoa bestea.

Eibar Rugbyak Santiago Carrara fitxatu du

Italiako Catania taldetik datorren jokalaria argentinarrak 26 urte ditu eta, lehen taldean 10 bezala jokatzear gain, 16 eta 18 urtetik azpikoen taldeetako eta nesken bigarren taldeko bigarren entrenatzailea izango da. Argentinako Jockey Club Cordoban egin zituen lehen urratsak eta 18 urterekin debutatu zuen lehen taldean, *"baita errugbi-7 modalitatean ere"*. Amatori Catania Siziliako taldean izan da gero -*"etxetik kanpo egon naizen lehen aldian"*- eta kirolari moduan *"hazteko asmoarekin"* dator. Bere gaitasunen artean, *"zuloak sortu eta taldeki-deei jokaraztea"* ditu gustukuen Carrarak eta *"erasoan bizkortasuna eta defentsan segurtasuna"* eskaintzeko asmoz dator. Normalean 10 (irekiera) bezala jokatzen badu ere, 12 eta 15 modura ere jokatuta izan du.



Azken denboraldia agurtu zuen taldea. Badira berritasunak.

Somos Eibar Eskubaloiak Romoren aurkako bi partidu jokatuko ditu hilabete honetan

Eibar Eskubaloiko senior mailako lehen taldeak atzo arratsaldean hartu zuen Romo Ipuruko kiroldegian Euskadiko Kopako neurketaren barruan eta aurkari bera izango du hilaren 27an Gobelako pistan jokatuko duen 1. Maila Nazionalako liga hasierako partiduan. Aurretik eibartarrek erraz irabazi zioten Barakaldori (37-12) orain dela egun batzuk jokatutako Euskadiko Kopako lehenengo partiduan. Taldeak hainbat zalantza zituen hegaleko ezkerrean jokatzen duten Azkonizaga eta Mikel Cachoren parte-hartzeaz eta Fernando Fernandez entrenatzaileak Haritza taldeko Santos eta Cruz deitzea zuen aurrikusita. Domeka honetan jokatuko dute eibartarrek Euskadiko Kopako hirugarren neurketa, Trapagaran taldearen kantzaxan eguerdiko 12:30ean hasiko den partiduan.

Cuevasek bertan behera laga behar izan zuen azken proba

Aurreko zapatuan Kroaziako Sveti Martin Na Murin jokatutako ultrafondoko Mundialean Asier Cuevas eibartarrak ez zuen bere egunik onena izan eta ezin izan zuen amaitu 100 kilometroko proba. Sasoi onean aurkitzen bazen ere, ezin izan zuen marka egiteko bere asmoa bete: 6 ordu, 35 minutu eta 49 segundotan lagako du, beraz, zapatukoa zelako bere *"azken ahalegina distantzia horretan"*.



Liga hasiera bikaina Eibar FT-ko ordezkariarentzat

Aurreko asteburuan gizonezkoen lehen mailak atsedena izan bazuen ere, beste hainbat taldek partiduak izan zituzten, eta baita emaitza bikainak lortu ere. Emakumezkoen lehen taldeak 2. mailako liga hasi zuen Bizkerreren zelaian eta 1-2 irabazi zuen, Idoia Agirre aurrelariaren golekina, eta gauza bera egin zuen Eibar Urkok Ohorezko Maila Erregionalean egindako debutean, igoberriak 2-0 irabazi baitzion Oiartzuni Unben, Bravo eta


Leitzaren golekina. Jubeniletako Ohorezko Maila Nazionalen eibartarrek 3-2 irabazi zioten Santutxuri ligako bigarren jardunaldian eta, emaitza horrekin, sailkapeneko goiko aldean daude partidu bat berdindu eta bestea irabazi ondoren. Jubeniletako bigarren taldeak hiruna berdindu zuen Barakaldorekin etxean, Unben. Kadete mailako Euskadiko Ligan, bestalde, Eibartarrek Tolosan 0-1 irabazi zuen Ligako lehen partiduan, Julenen golari esker.

LUIS JESUS RAMOS AIZPURUA

I. URTEURRENA: 2017-IX-14

*"Beti zurekin, beti gurekin.
MAITE ZAITUGU"*

ETXEKUAK





RAY MUÑOZ: Matsariako eraikina.

Eibarren 11 egun euskaraz bizitzeko prest egongo litzatekeen pertsona baten bila hasi zen Akebai plataforma uda aurretik, kamara aurrean ondo emateaz gain, lotsarik gabe egoera desberdinetatik onik ateratzeko gai izango litzatekeena. Horretarako casting bat antolatu zen Portalea kultur etxean ekainaren hasieran. Casting horretatik bi lagun irten ziren, **Miren Gisasola** eta **Malen Illaramendi**, eta datorren astelehenetik aurrera gazte biek grabatutako bideoak ikusteko aukera edukiko dugu. Eibarren euskaraz bizi daitekeen jakin nahi baduzue, adi egon!!!



Eibarren euskeraz biziko gara

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra birtartean iritsiko da Euskaraldia Euskal Herrira eta Eibarren ere "11 egun euskaraz" ekimena egingo da. Giroa berotzen joateko eta esperimentu gisa, Eibarren Akebai plataformak 11 bideo presatatu ditu Anemona estudioarekin batera. Bideoblog horretako protagonista nagusiak Malen Illaramendi eta Miren Gisasola gazte eibartarrak dira eta datorren astelehenetik aurrera ikusi ahal izango ditugu internet bitartez. Irailaren 17tik 27ra, egun bakoitzean, bideo bat aurkeztuko da. Beraz, egon adi. Euskeraz bizi gaitzekela ikustez gain, primeran pasatuko duzue! Bideoak laburrak izango dira, 3 edo 4 minutukokak, eta ordenagailu, tablet edo mugikorretatik ikusteko aukera izango dugu. Eibarren Akebaiko Idoia Argoitiak esan digunez, "sare sozialen bidez joango gara egunero

gogoratzen eta estekak partekatzen, eta sare sozialak erabiltzeko ohiturarik ez daukazuenok ondo apuntatu: https://vimeo.com/akebai_helbidean_sartu_eta_hor_izango_dituzue_ikusgai".


Castingarena jakin zuenean Miren Gisasolak ez zeukan oso argi aurkeztu ala ez: lana, kirola, musika... ez zeukan astirik eta azken momentura arte ez nuen izena eman, "egia esan, lagun batek eman zuen nire izena. Ez da nire lehen castinga izan, aurretik beste bitan parte hartu dut eta guztietan hartu naute". Astelehenetik aurrera ikusiko dugun "Miren&Malen Euskaraldian" bideoblogean Eibarren euskeraz bizitzeko erronka gainditu beharko dutela esan digu Mirenek: "Oso gustora egin dut eta aurreko lanetan baina berba gehiago egin dut. Herriko leku desberdinetan sortutako egoerak eta eibartarrek

euskerarekiko duten jarrera ikusiko duzue. Momentu barregarriak ikusiko dituzue, baina egoera deserosoak ere sortuko dira". Jendea bideoak ikustera animatu nahi du Mirenek, "ondo pasatuko dute, zalan-tza barik. Atzean lan izugarria dago. Anemona taldeak itzelezko lana egin du gidoia lantzen, koordinatzen eta grabatzen, eta momento guztietan lana erraztu egin digute Maleni eta biei".

Malen Illaramendirentzako lehen esperimentzia izan da aktore bezala. "Castingarena sare sozialetan irakurri nuen. Kamara aurrean lotsatzen ez den jendea behar zela irakurri nuen eta, askoz gehiago jakin barik, animatu egin nintzen. Uztailean egin genituen grabazioak. Gure zeregina egoera desberdinetan beti euskeraz berba egitea zen, nahiz eta besteek jakin ez edo ulertu ez. Jendearen jarrera, erreakzioa eta konpromiso maila ikusiko duzue 11 bideoetan. Hau guztia esperimentu antzeko bat izan da, Euskaraldirako jendearen interesa pizteko eta eurak ere Aho Bizi, Belarri Prest edo Bihotz Goxo bezala parte hartzera animatzeko, guk bizi izan duguna eurak ere Euskaraldian bizitzera animatzeko". Malenentzako lehen aldia izan da. Momentu batzutan "lotsa" apurtxo bat pasatu zuela aitortu digu, "esate baterako egun batean nire etxera etorri ziren. Ohetik jaikitzen eta dutxan grabatu ninduten. Lotsa apurtxo bat pasatu nuen, baina egin nuen. Orain, bideoak nola geratu diren ikusteko desiatzen nago. Aukera izan dut aurretik ikusteko, baina nahiago izan dut sorpresa mantentzea. Oso ondo gelditu direla esan didate!".



Malen (ezkerrean) eta Mirenekin batera Maddi Laspiur, Arrate San Emeterio eta Sua Etxaniz agertuko dira Bideoblogean astelehenetik aurrera.



JOSE MIGUEL LASKURAIN (musikaria)

“Gurutzean bueltak emanda Debabarreneko Orfeoiarentzat kide berriak eskatuko ditugu”

Kurtso berria hasteko, asteburuan ezohiko emanaldia eskainiko du Debabarreneko Orfeoiak (DBOR): “Nobix@a bilatzen” izenburuko kontzertua domekan, 17:00etan hasiko da, Arrateko gurutzean. Izenburuak berak eta kontzertua emateko aukeratu duten tokiak antolatzaileen asmoa zein den asmatzeko lagungarri apartak dira. Izan ere, Debabarreneko Orfeoiak gure herriko ohitura zaharrari jarraituko dio eta, gurutzeari bueltak emango dizkiote, “nobioaren ordez, Orfeoirako kide berriak eskatzeko”.

- Nolatan antolatu duzue domekako kontzertua?

Ahalik eta jende gehien erakartzeko asmoarekin aukeratu dugu eibartarrentzat horren berezia eta kutuna den toki kontzertua emateko. Alde batek, azken hilabeteotan Debabarreneko Orfeoiak egindako lana ezagutzera eman nahi dugu eta, horrekin batera, kontzertua entzutera datorren jendearen artean musikarekiko grina piztea nahiko genuke, ea horrela euretako batzuk behintzat taldearekin bat egitera animatzen diren. Norbaitek Debabarreneko Orfeoiari sartzeko interesa izango balu, dborfeioa@gmail.com helbidera idatzita gurekin kontaktuan jarri daiteke.

- Asteburu honetan eskainiko duzuen emanaldiarekin hasiko duzue kurtso berria. Aurrera begira, badaukazue beste kontzerturen bat eskaintzeko asmorik?

Datozen asteotarako hainbat kontzertu lotuta ditugu: urriaren 6an Zaldibarren egongo gara kantatzen eta handik egun batzuetara, Pilareko zubia aprobetxatuta, Segoviara joango gara urriaren 12, 13 eta 14an han ere estilo anitzeko abestiak eskaintzeko.

Segoviako emanaldiak hango talde batekin, Coralia Artis izenekoarekin egingo dugun elkartrukearen harira antolatu dituzte. Aipatutako talde hori azaroan etorriko da Eibarrera kantatzera.

- Debabarreneko Orfeoiak zuzentzeaz gain, musika arloko hamaika proiektu daukazazu esku artean...

Hala da, bai. Udan lehen aldiz antolatu den orkestra zuzendarien mundu mailako topaketan parte hartu nuen. 40 herrialdetako 150 lagun elkartu ziren Huelvan egin zen topaketan eta irakasle-taldean egoteko deitu zidaten, atzerriko beste zuzendari batzuekin batera topaketan parte hartzeko. Gonbidapena pozarren onartu nuen eta esperientzia aparta izan zen, zalantza barik. Hortik kanpora, ikasturtean zehar Bergaran klaseak ematen ditut eta orain internet bidez musika irakasten hasi naiz, horretarako www.aulos.simdif.com izeneko plataforma erabilia.

Eibarren Euskaraldiari lotuta zer egingo den azaltzeko bilera informatiboak



Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean “Euskaraldia. 11 egun euskaraz” ekimena martxa betean izango da Euskal Herri osoan, baina Eibarren ere. Orain arte Euskaraldiari lotutako ekitaldi batzuk izan baditugu ere, ekimena gero eta gertuago daukagu eta, Eibarren zer egingo den jendeari azaltzeko asmoz, datorren astean lau bilera egingo dira, interesa duten guztiek informazioa jasotzeko aukera izan dezaten. Lehen bilera astelehenean izango da, ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 solairuarte). Martitzenean, berriz, Armeria Eskolan (Areto Nagusian) izango da bilera, eguaztenean udaletxean (Pleno Aretoan) eta azken bilera, berriz, eguenean egingo da, Portalean (Batzartokian, 1. pisuan). Bilera guztiak 19:00etan izango dira.



Ikasturteko lehen kontzertua emango du gaur Musika Bandak

Gaur emango du ikasturte berriko lehen kontzertua Eibarko Cielito Musika Bandak, 23:00etan Toribio Etxebarria kalean. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduta, honako egitaraua eskainiko dute musikariek: "Ayamonte" (pasodoblea, J. A. Jimenez), "Ezpatadantza de la opera Amaya" (intermedio, J. Guridi), "Agua, azucarillos y aguardiente" (aukeraketa, F. Chueca), "Las playas de Rio" (abestia, Kees Vlak) eta "Total Toto" (aukeraketa, K. Van der Wouderen moldaketa). Gaur gaueko emanaldi bereziaren ostean, irailaren 30ean, Coliseoko ohiko emanaldiekin itzuliko dira Musika Bandako kideak, 12:30ean hasiko den kontzertuarekin.

17an zabalduko da "Argazkigintza digitala" ikastarorako izen-ematea

Azken urteotan bezala, aurten ere "Argazkigintza digitala: lehen urratsak" ikastaroa antolatu dute 16 urtetik gorako zaletuentzat. Ikastaroa urriaren 15ean hasi eta azaroaren 28an amaituko da (30 ordu teoriko-praktiko izango dira guztira) eta izena ematen dutenek, besteak beste, argazkigintza digitalaren oinarriko kontzeptu eta teknikak ikasiko dituzte, horretarako baliabide informatikoak erabilita. Klaseak Portalean izango dira, astelehen eta eguaztenetan, 19:00etatik 21:30era eta gaztelezaz emango dituzte Jose Valderrey eta Juan Antonio Palacios, Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko kideek. Informazioa eskatzeko zein izena emateko Pegorara joan beharko da, irailaren 17tik urriaren 4ra arte. Ikastaroaren prezioa 47 eurokoa da Eibarren errolatuta daudenentzat (79 eurokoa gainontzeko guztientzat).




Bihar itzuliko dira zine-emanaldiak

Udako oporretan izandako etenaldia amaituta, asteburu honetatik aurrera Coliseo antzokiko ohiko zine emanaldiei helduko diete berriz ere. Asteburu honetan zehar ikusi ahal izango diren filmak "La monja" (Corin Hardy), "Un océano entre nosotros" (James Marsh), "Hotel Transilvania 3. Unas vacaciones monstruosas" (Genndy Tartakovsky) eta "Predator" (Shane Black) dira. Orain arteko martxan, txartelen salmentarako leihatila emanaldi bakoitza baino ordubete lehenago irekiko dute 17:00etako emanaldirako. Gainontzeko emanaldietarako, berriz, emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago zabalduko dute. Horrez gain, internet bidezko aurrezalmenta ere eskaintzen da.



Kezkaren dantza-eskola

Klub Deportiboko Kezka dantza taldearen eskutik gidatutako dantza-eskolak irailaren 25an zabalduko ditu ateak, Portaleko 3. solairuko dantza-gelan, 6 urtetik gorako haurrentzat. Nagusientzat, berriz, iazkoari jarraituta ikastaro bereziak emango dituzte, urriaren 2an hasita, "plazako euskal dantza tradizionala ikasi eta dantzatzuz gozatzeko" honako aukera zabalarekin: hasiberrientzat, martitzenetan (19:00etatik 20:00etara) eta eguenetan (11:00etatik 12:30era); eta jarraipenekoentzat, berriz, martitzenetan (10:00etatik 11:30era edo 20:00etatik 21:00etara), eguenetan (09:30etik 11:00etara) eta barixakuetan (17:30etik 19:00etara). Talde guztientzat matrikula epea zabalik dago oraindik. Informazio gehiago eskatzeko eta izena emateko kezka@dantzan.com helbidera idatzi edo 943 53 04 40 zenbakira deitu.



Bertso-saio musikatua

Azken urteetan bezala, aurten ere bertso-saio musikatua antolatu dute Hankamotxak bertso eskolakoek, Lankuk eta Udalak lagunduta. Irailaren 28an (barixakua) izango da, 22:30ean hasita, Txaltxa-Zelaiko kioskoan (euria egingo balu, Portalean) eta sarrera dohainik izango da. Beñat Gaztelumendi, Miren Artetxe, Jokin Bergara eta Alaia Martin bertsolariak jardungo dute, Ixak Arruti eta Gari Otamendiren musikaz lagunduta, eta gaitzailea Manu Goigana izango da.

Asteburuan hasiko dira Bien Aparecida Kantabriako zaindariaren omenezko jaiak


Domeka honetan hasiko dira Bien Aparecida Ama Birjinaren omenez Eibarko Kantabriako Etxeak antolatutako jaiak ospatzen: 12:00etan San Andres elizan meza egingo da eta, ondoren, 13:00ean, Kantabriako Etxeko bazkide eta lagunentzat piskolabisa emango dute, elkarrekin Jardinetan kalean duen tabernan. Eta 14:30ean bazkide eta lagunentzat bazkaria hasiko da, Ipuruako bolatokian, David folklorista kantabriarraren musikarekin girotuta.

Beste urte batzuetan bezala, oraingoan ere Kantabriako zaindariaren jaiak jarraipena izango dute iraileko hurrengo asteburuetan: irailaren 22an alebin futbol txapelketa (11:00etan) eta igel eta toka jokoen norgehiagoka (16:30ean Ipuruako bolatokian) jokatuko dira. Eta irailaren 29an, berriz, Santanderreko La Encina



abesbatzak 20:00etatik aurrera San Pio X.a elizan eskainiko duen emanaldiarekin eta, jarraian, Ipuruako bolatokian elkarteko bazkide eta lagunentzat emango duten piskolabisarekin agurtuko dituzte jaiak.

Niceto Muguruza medikuaren liburua berrargitaratuko dute



1918an argia lehenengoz ikusi zuen "Nociones generales de higiene del obrero siderúrgico", Niceto Muguruza mediku eibartarraren liburua berriz argitaratuko da, Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearen eskutik. Niceto Muguruza Larriña (1882-1920), sasoi hartako higienistatik ezagunenetakoa izan zen eta, horrez gain, Udal Laboratorioaren zuzendaria izan zen, 1912tik hil zen arte.

Medikuntzarekiko berez zuen bokazioak, etenbariko lanak, herritarren osasunaren aldeko zuen ardurak eta, batik bat, lan-osasunaren inguruan zuen kezka bultzatuta,

1917an Armeria Eskolan hitzaldi sorta bat eman zuen eta, hurrengo urtean, horiek guztiak "Conferencias. Nociones generales de higiene del obrero siderúrgico" izenburukoan batu eta Eibarren argitaratu zuten liburua. Bereitasunik ere badu lan horrek, izan ere sasoi hartan oso ohikoa ez zen "Seguridad en el trabajo industrial. Precauciones contra los accidentes de trabajo" izeneko kapitulu bat dauka, besteak beste. Lehen edizioaren mendeurrena aurten betetzen dela eta, Lan Medikuntzaren Euskal Elkarteak liburua berriz argitaratu emango du.

Iraileko argazki erakusketak tabernetan

Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek ikasturte berriari ekin diote, irailerako hiru erakusketak antolatuta beste horrenbeste tabernetan: Marian Aretxabalaren lanak El Ambigü tabernan ikus daitezke, Virginia Barinagarenak Portalea jatetxean eta Pablo Marotorenak Deporren.

Bestalde, 2019. urtean argazki erakusketaren bat (bakarka zein taldeka) Eibarren egin nahi izanez gero, eskaera jllirigoi@gmail.com helbidera lehenbailehen bidali daiteke, kurrikulum labur batekin eta erakusketari buruzko ohar batekin batera eta hiru argazkirekin (72 ppp-ko bereizmenarekin) lagunduta. Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeak erakusketak egiteko hiru gune (28, 12 eta 10 argazkitarako tokiarekin) kudeatzen dituzte.



Pablo Maroto Blanco

Marian Aretxabala



Arduradunek azaldutakoaren arabera, "erakusketarako argazkiek 40x50 zentimetroko neurria duen kartulina edo "passpartout" baten gainean aurkeztu behar dira, baina irudiaren neurriak libreak dira. Erakusketan horiek ikusgai ipintzeko markoak, kristalarekin, guk dauzkagu eta, horrez gain, erakusketak ezagutzera emateko kartela ere argitaratzen dugu. Eta internet bidez ere oso zabal-kunde handia egiten dugu, erakusketen inguruko informazioa 1.400 helbide elektronikora bidaltzen dugu eta".

San Nicolas jaik LASTURREN


Egunak daramatzate San Nikolas jaik bete-betean ospatzen Lasturren eta horretarako aukera izango da asteburu honetan ere. "Bikoteen eguna" izango da biharkoa eta goizetik hasiko dira jarduerak: 11:00etan pilota eta bola-joko txapelketak jokatuko dituzte, jakina, bikoteka. Ondoren, bazkaria egingo da auzoko tabernan eta arratsaldean berriz ere bikotekako jokoak egingo dira. Iluntzeko 20:00etan Xabier Amurizak "Euskal Herritik aparte tunel luze bat bitarte..." izenburuko hitzaldia emango du frontoian eta, gauerditik aurrera, Ezten Giro taldearekin erromeria egongo da. Eta domekan "Intxorpe eguna" ospatuz agurtuko dituzte jaik.



SanloBeer garagardo festa ELGOIBARREN

Seigarren urtez antolatu du SanloBeer garagardo festa Elgoibarko Sanlo eskubaloi taldeak. Atzo hasi eta domekara arte Maalako parkean izango da garagardo jaia: garagardo ezberdinekin (Keler, Free Damm, Bock Damm, Oro Bilbao, Estrella Damm, Radeberger, eta Pabsr Blue Ribbon) batera, ukondoa, saltxitxak, patata purea, oilaskoa eta patata frijituak jateko aukera ere izango da eta domekan paella erraldoia prestatuko dute. Aurrekoetan bezala, oraingoan ere zuzeneko musika emanaldiak, bingoa, dantzaldiak eta beste hainbat jarduera antolatu dituzte garagardo azoka girotzeko asmoz. Besteak beste, Melissa & The Jacks taldeak kontzertua emango du zapatu gauean.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Manuel Tardio Gordillo. 83 urte. 2018-VIII-31.
- M^a Paz Ibaibarriaga Ereña. 85 urte. 2018-IX-4.
- Teresa Aranzabal Larramendi. 69 urte. 2018-IX-5.
- Arantza Goikoetxea Uriarte. 91 urte. 2018-IX-5.
- Jose Antonio Chicote Arteach. 70 urte. 2018-IX-12.

jaiotakoak

- Rayan El Ouahabi. 2018-VIII-16.
- Amaia Rodriguez Sanchez. 2018-V-19.

farmaziak

- Barixakua 14
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 15
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 16
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Astelehena 17
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Martitzena 18
EGUNEZ Mandiola (San Agustin, 3)
- Eguaztena 19
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Eguena 20
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Barixakua 21
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI -2018AN-
Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN
EMAITZA

7	8	4	9	6	1	5	2	3
9	5	6	8	3	2	4	1	7
2	1	3	5	7	4	6	8	9
6	4	7	2	1	8	9	3	5
1	3	5	6	9	7	2	4	8
8	2	9	4	5	3	7	6	1
5	7	1	3	4	6	8	9	2
4	9	2	1	8	5	3	7	6
3	6	8	7	2	9	1	5	4

		4			9			
	2	8		6	1	3		
			4					7
	4	1						3
2								5
5						1	8	
8					4			
		3	9	5		7	4	
			7			9		

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 14

PILOTA

19:00. Gipuzkoako Eskuz binakako txapelketako lehen partida jokatuko dute Klub Deportiboko lau pilotarik. Sarrera doan. Astelena frontoian.

KONTZERTUA

23:00. Eibarko Musika Bandaren kontzertua, Carlos Sanchez-Barbak zuzenduta. T. Etxebarria kalean.

Zapatua 15

UMEENTZAKO EKINTZA

17:30. Goyo magoaren ikuskizuna, doan, El Corte Inglesean (3. solairuko terrazan).

Domeka 16

ARRATE IZENEKOEN JAIA

09:00. Arrate izeneko XXII. Jaia. Arratera igoera, Ama Birjinaren pausoen bide zaharretik, meza, bazkaria, jolasak eta dantzaldia.

BIZIKLETAREN EGUNA

09:30. Ziklo turista eta BTT kontzentrazioa Untzagan.

11:30. Umeendako (8, 9 eta 10 urte) zirkuitoa, erdialdeko kaleetan.

12:30. Umeendako (0-8 urte) zirkuitoa, Untzagan.

12:45. Umeendako (11-12 urte) zirkuitoa, erdialdeko kaleetan. Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatuta.

AUTO KLASIKOAK

10:00/14:00. Auto klasikoen kontzentrazioa. Untzaga plazako harmailen aldean.

12:30/13:00. Kalejira herritik.

MEZA

12:00. Mojei harrera egiteko meza berezia. Arrateko santutegian.

BIEN APARECIDA JAIK

12:00. Meza, San Andres elizan.

13:00. Piskolabisa, bazkide eta lagunentzat, Jardifñeta kaleko tabernan.

14:30. Bazkaria, bazkide eta lagunentzat, David folklorista kantabriarrak girotuta. Ipuuako bolatokian. Kantabriako Etxeak antolatuta.

KONTZERTUA

17:00. "Nobix@a billatzen!", Debabarreneko Orfeoien kontzertua. Arrateko gurutzean.

Astelehena 17

MOBILIZAZIOA

12:00. Pentsio duinak eskatzeko elkarretaratzea, herriko jubilatua eta pentsiodunek deituta. Untzagan (udaletxe parean).

BILERA

19:00. Eibarren Euskaraldiaren inguruan zer egingo den azaltzeko bilera informatiboa. ...eta kitto! Euskara Elkartearen.

Martitzena 18

BILERA

19:00. Eibarren Euskaraldiaren inguruan zer egingo den azaltzeko bilera informatiboa. Armeria Eskolan (Areto Nagusian).

AURKEZPENA

19:00. Berbetan egitasmoaren aurkezpena. Portaleko areto nagusian.

Eguaztena 19

BILERA

19:00. Eibarren Euskaraldiaren inguruan zer egingo den azaltzeko bilera informatiboa. Udaletxean (Pleno Aretoan).

Eguena 20

ODOL-EMATEA

18:00. Odola ateratzeko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

BILERA

19:00. Eibarren Euskaraldiaren inguruan zer egingo den azaltzeko bilera informatiboa. Portalean (Batzartokian, 1. pisuan).

Erakusketak

Irailaren 30era arte:

- MARIA ARETXABALAREN ARGAZKIAK (*El Ambigú taberna*)
- VIRGINIA BARINAGAREN ARGAZKIAK (*Portalea jatetxea*)
- PABLO MAROTOREN ARGAZKIAK (*Eibarko Klub Deportiboa*)

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

15ean: 19:45, 22:30

16an: 20:00

17an: 20:30

"La monja"

Zuzendaria: Corin Hardy



(2 ARETOAN)

15ean: 17:00, 19:45, 22:30

16an: 17:00, 20:00

17an: 20:30

"Un océano entre nosotros"

Zuzendaria: James Marsh



(ANTZOKIAN)

15ean: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30

16an: 17:00^(1 aretoa), 20:00

17an: 20:30

"Predator"

Zuzendaria: Shane Black



(ANTZOKIAN)

15ean: 17:00

16an: 17:00

"Hotel Transilvania 3"


Musika: Genndy Tartakovsky



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, MALEN, martitzenian 13 urte! Jarraitu halako neska alai eta irrifartsua izaten! 13 milla musu etxequon partez.



Neska jatorra da-eta, neska jatorra da-eta... Zorionak, INTZA! Astelehenian 11 urte! Milla kilo zorion zuretzako.



Zorionak, LOREA, gaur 6 urte egiten dozuzelako. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Malenen partez.



Zorionak, AIUR, haraiñegun 6 urte bete zenduaz-en-eta... Milla musu famelixa guztiaren partez, keep on rockin!



Zorionak TELMO mutil haundi, asteartian hamar urte bete zenuen-eta. Patxo potolua etxequon, eta batez be, Markoren partez.



Zorionak, IKER, haraiñegun 6 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Koldoren partez.




Zorionak, ALAZNE, abuztuaren 27xan 3 urte bete zenduaz-en-eta. Musurik haundixena etxequon guztien partez.




Zorionak, MARTINA, haraiñegun 8 urte bete zenduaz-elako. Musu potoloo bat ama, aitta eta Luciaren partez.



Zorionak, ALEX, gaur 8 urte bete dozu-eta. Musu haundi bat etxequon partez!!




Zorionak, XABIER, hillaren 4an urtetxua bete zenduaz-en-eta!! Etxequon eta, batez be, Josuren partez.



Zorionak, JOKIN!!!, Arrate egunian 7 urte egin zenduaz-en-eta. Musu potoloo bat gurasuen partez.



Zorionak, ANE Agote Ramirez, abuztuaren 29xan 2 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, EKAIN eta AITXITXA, aste honetan zeuon urtebetetzia izan da-eta! Segi horrela, bikote!



Zorionak, aitxitxa FERNANDO eta amama MAITE, gaur ezkondu zifietela 50 urte betetzen dira-eta. Ederto ospatuko dogu bixar. Ane, Eneko eta Enararen partez.




Zorionak, PEIO, irailaren 5ian 4 urte bete zenduaz-elako, eta Amatxo ALAZNE, hillaren 8xan zuk be urtiak bete dozu-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, OIER!! Gaur 4 urte!!! Matxo berezi bat, URKOREna, eta beste haundi bat etxequon partez!!!!



Zorionak, MAITANE!! 8 urte!! Egun zorionsua pasa datorren martitzenian zure famelixa eta lagunekin. Musu potolua etxequon eta, batez be, MARKELen partez.



Abuztuak 27an jaio zan IAN. Ongi etorri bihotz bihotz maite zaituen familiaren partez.



Zorionak, EKAIN, 11 urte bete dozu-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- 2 logelako pisua alokatzen dut Barakaldo kalean. Berriztua eta eguzkitsua. Igogailua eta trastelekua. Tel. 653-733457.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 680-526228.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelarekin. Tel. 617-674927.
- Buhardila alokatzen da Txontan. 5. pisua, igogailu barik. Prezio interesgarria. Tel. 626-144098.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Lokala alokagai Eibarko erdigunean. Akademia edo kontsultarako egokia. 100 m². Tel. 606-065518.
- Lokal komertziala alokagai Birjiñape 1ean (Sokoa ondoan). 33 m². 250 euro. Tel. 688-678934.
- Garaje itxia alokagai Arrate Bide 17an. Tel. 639-491422.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 642-462145.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 667-060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-326679.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-426847.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-130135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. 10 urtetik goragoko esperientzia. Tel. 632-271530.
- Mutila eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta baserriko lanak egiteko. Tel. 631-421767 eta 632-271530.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (orduka, gauzez edo asteburuetan). Esperientzia handia eta erreferentziak. Tel. 652-668877.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-482203.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-835745.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 612-245326.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 674-713262.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerarako. Interna edo asteburuetan. Esperientzia eta informea. Tel. 643-401187.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 602-386676.

- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 676-553093.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin... Tel. 632-875808.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin... Tel. 617-810065.
- Emakumea eskaintzen da interna lan egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-405748.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 612-518050.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Erreferentziak. Tel. 688-842791.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 671-814324.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-959575.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan ospitalean gauzez. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-733573.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 600-212516.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Esperientzia. Tel. 602-844282.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanerarako. Erreferentziak. Tel. 651-508694.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta hoteletan jarduteko. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 633-101852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 631-269177.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 603-639267.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko arratsaldez. Tel. 687-114707.
- Emakume euskalduna eskaintzen da astegun arratsaldetan garbiketara eta zaintza lanak egiteko. Orduka. Tel. 665-733162.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-200936.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 685-036902.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-891709.
- Emakumea eskaintzen da gozogintzan lan egiteko: pastelak, bizkotxoak... jai eta ospakizunetarako. Tel. 602-307756.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 675-823403.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-532426.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 627-230784.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 9 urteko esperientzia. Tel. 631-771822.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-896116.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 649-025614.

4.2. Langile bila

- Sukalderako laguntzailea behar da. Tel. 685-286303 eta 665-308025.
- Kamarera/o behar da Eibarko kafetegi batean lan egiteko. Esperientziarekin. Tel. 644-733651.
- Pertsona bat behar da okindegi batean lan egiteko. Euskera garrantzitsua da. Idatzi: tutulookindegia@gmail.com
- Sukalde-laguntzailea behar da. Esperientziarekin. Tel. 665-308025.
- Neska behar da umeak eskolatik jasotzeko. Tel. 653-701630.
- Sukalde-laguntzailea eta kamarera/o behar dira Eibarko taberna batean. Tel. 639-792203.
- Emakumea behar da adineko pertsona zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Egunean ordu batzuk. Berehala hasteko. Bidali erreferentziak: maunibi@yahoo.com
- Neska/emakume euskalduna behar da irailetik aurrera arratsaldez umea zaintzeko eta etxeko lanerarako. Deitu iluntzean. Tel. 676-105492.
- Banatzaileak behar dira ...eta kitto! asterkaria banatzeko. Tel. 943-200918 eta 943-206776. banaketa.etakitto@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Irakaslea behar da 5 urteko umeari etxean ingelesez irakasteko. Tel. 661-700439.

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Kimika eta Fisika klase partikularrik ematen ditut maila guztietan. 4 laguneko taldeak gehienez. Urteetako esperientzia. Tel. 615-705945.
- LHko irakasleak (ingelesezko C1 mailarekin) klase partikularrik emango litzuzke. Tel. 688-659861.
- DBH eta Batxilergorako klase partikularrik ematen ditut. Goiz eta arratsaldez. Tel. 685-739709.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko disko, LP eta singleak erosten ditut. Tel. 688-624326.

6.2. Eman

- Katakumeak oparitzen dira. Tel. 643-681509.

6.3. Galdu/Aurkitu


- Erlojua aurkitu nuen uztailean Barakaldo kale inguruan. Tel. 659-711802.

6.4. Bestelakoak

- Aulki gurgilduna behar dugu. Gehienez 60 zentimetrotako zabalera. Tel. 616-909630.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu

Hyundai KONA Gama Berria. 14.610€-tik aurrera



Hyundai KONA elektrikoa iritsi da. Lehenengo SUV konpaktu elektrikoa, 482 km-ra arteko autonomiarekin.

Zugan inspiratu gara berriro. Bizitza ikusteko duzun moduan. Oraina mugarik gabe bizi duzu, eta etorkizunarekin arduratzen zara. Horregatik sortu dugu Hyundai KONA elektriko Berria. SUV konpaktu elektriko paregabea, ezaugarri sineztezinekin:

- Bi bateria-aukera:
39,2 kWh-ko bateria, 136 cv (100kW) eta 312 km-ra arteko autonomia*
64 kWh-ko bateria, 204 cv (150 kW) eta 482 km-ra arteko autonomia*
- Karga azkarreko aukera: bateriaren %80-ra arteko birkarga ordubeteetan.
- 0 km/h-tik 100 km/h-rako azelerazioa 7,6 segundotan.

Hyundai KONA elektriko Berria hain kotxe paregabea da beste KONA baten antza bakarrik izan dezakeela. Hyundai-rekin gama erabat desberdinaz gozatuko duzu.

Hyundai KONA Gama Berria. Zuk inspiratzen duzu. Zuk gidatzen duzu.

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
www.oarsocar.com

ELGOIBAR
Olaso Polig., 17
943 74 14 80

OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30



5 DE GARANTÍA SIN LÍMITE **8** GARANTÍA DE BATERÍA

Hyundai KONA EV Gama: CO₂ emisio konbinatuak (gr/km): 0 erabileran. Kontsumo elektrikoa (Wh/km): 139 (39,2 kWh bateria) - 143 (64 kWh bateria). Autonomia (km)*: 312 (39,2 kWh bateria) - 482 (64 kWh bateria). Hyundai KONA Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 117-158 Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2-7. PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan KONA 1.0 TGD 88,3kW (120 CV) 4x2 ESSENCE M YD (M6706). BEZ, garrakoa, matrakulazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza barne. Hyundai-ra Aldaketa Plana aplikatu daiteke erabilitalako auto baten truke, 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren titulartasunpean. Eskaintza hau aplikagarria da Hyundai MOVE produktuarekin finantzatzen duten bezero partikularrentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin. Finantziazioa finantza-erakundeak aztertu eta onartu beharko du. Eskaintza 2018/09/30era arte da baliozkoa. Ikusten diren modeloak KONA EV Style eta KONA Style. Mantenimendua Ibilgailuaren finantziatzaori lotua. Tenbitu atxiko bateriarentzat Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskalitzen dien km mugarik gabeko 5 urteko bermie konertzibila eta 200.000 km-ko 8 urteko (lehendabizi gertatzen dena) Hyundai-ren sare ofizialak salbukatuko Hyundai Ibilgailuei soilik aplikatuko zate, zerbitzu-pasaporteari arabera. Kontsultatu esku eskaintza, mantenimendua eta berriaren baldintzak Hyundai kontzesionario sarean edo www.hyundai.es orrian. *Autonomia ofiziala WLTP gidatze ziklo Berriaren arabera. Autonomia erreala gidatze moduak, egoera klimatikoak, errepidearen egoerak eta aire gutxiaren edo berogailuaren erabilerak baldintzatu dute.

Informazioa, matrikula eta ordutegiak

943 744 040
www.ils.es



- Maila guztiak
- Mintzamena lantzeko klaseak
- 2-3 ordu astean (goizez edo arratsaldez)
- Titulu ofizialeterako prestakuntza:
FCE, CAE, Proficiency, DELF, DALF, Certificat Deutsch etab.

ALEMANA
FRANTSESA
INGELES
ITALIERA

**2018/2019 ikasturtea
urrian hasiko da! Ani-
matu!**



Industry Language Services

Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.



Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar
www.bistaeder.es